


B

BARREN

TOKIKOM

Busti jaietan



Jai zoriontsuak!





**Eskaintza berriak
inplantedun tratamenduetan.
Eskatu zure kasuaren
gaineko argibideak.
24 hilabetean interesik gabe
ordaintzeko aukera.**

Aldaz Hortz Klinikak tratamendu aurreratuenetan aplikatutako punta-puntako teknologia eskaintzen dizu

- inplanteak eta hortz fijoak egun batean**
- ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe**
- “invisaling” ortodontzi ikusezina**
- haurrentzako ortodontzi tratamendu prebentiboak eta korrektoreak (Osakidetza-**PADI**)**
- pazientearen irribarrea sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak**
- interesik gabeko finantziazioa 18 hilabete arte**

RPS 25/06

Deitu gure zerbitzua ezagutzeko

943 366 377

Ola kalea, 10 San Bartolome, 22
Lasarte-Oria 20160 Elgoibar 20870

www.dentalaldaz.com

ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



**INFORMA ZAITEZ! AUTOKO AZTERKETA TEORIKOA 17 URTEREKIN!
IKASTARO TRINKOAK!**

Ondo pasa jaietan!



ORDUTEGIA

09:45etatik-12:15era

15:00etatik-20:30era

5 EGUNEKO TEORIKAKO
IKASTARO TRINKOAK

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720 - 20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelerezko klaseak
- Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela



Meka

Lanbide Eskola

*Jai zoriontsuak,
ondo pasatu eta indartsu etorri irailean lanera!*



Anjel Ugarteburu

Ondo pentsatzen hasita, Andres, bajaukak alde onik idatziok jendeak irakurri baino dexente lehenago idazteak. Balei-kek jaietako ale hau atera orduko Elgoibarko presoak etxean egotea. Ailedi! Edota Cristina es-petxean egotea edo gu biotako bat lehendakari-izatea. Kontua dok hur-hurreko gaietatik libre geratzen garela, aukera ederrean.



Andres Alberdi

Bai, badik alde onik artikulua aldez aurretik idatzi beharrak, diferituan alegia, tupper erara nahieran baliatzeko. Gaurkoa testigu: sanbartolomeetan argitaratuko omen, baina, BARRENEKO langileen udako oporrak tarteko, guk uztailean idatzi behar. Horrela, ezin egun-eguneko albisteei heldu. Eta egunotako batek zinez ematen duela gaia! argazkian, zinema-aretoan bezala patxada ederrean eserita, freskagarriak eskuan, israeldar batzuk Gazako palestinarrei bonbak nola jaurtitzen dizkieten begira. Gerra ere espektakulu! lleak lastu zizkidak imajinak, barrenak erabat nahasi.

Aurrekoan lez, oraingoan be denbora zehatzen gaintetik libre bizi den umoreari helduko jeutsat, irakurleek eskertu be egingo deuskuen ziurtasunez. Euskal izendegiaz jardungo joat. Hara!

Frankismoaren azken urteetan euskal izenen errebolta izan zuan, eta izendegia arakatuz egiten hasi gintuzan lehen hormako egutegiari begiratzuz egiten zena: San Paskasio egunean jairoz gero, Paskasio izango zuan semea, erremedio barik, edo Paskasia alaba. Biliba jai, neska izan, egutegira begiratu eta han Sandalio agertzen. Zein uste dok izan zela amamaren erreakzioa? – *Sandalia ez behintzat; jarri neurea, Joxepa.*

“Denbora zehatzen gaintetik libre, euskal izendegiaz jardungo joat oraingoan”

Iritsi zuan aldaketa, bai. Aitor, Zigor, Amaia edo Nerea zituan 1972 hartan nire Eibarko ikastolako ikasleen izenik gehienak. Bost Aitor gela berean, txo!

Han, Milloin, auzoko amuma Ixidra ez zuan erraz ohitu izen be-riortara. Semeak familia izan eta jendeak galdetu:

- Zer izen ipini deutzozue, ba?
 - Gaurko izenekin zabiz? Ez nago ziur, baina Haxie dala uste dot.
 - Baita zereko Haxie!-tartekatu dok semea. - Asier, ama, Asier!
- Emea be etorri zuan handik urte eta erdira eta arazoak berriro:
- Izena dinozu? Nire belarrirako lehengoa bera orain be: Haxie.

Ez joan erraz ikasi Aitziber esaten.

Umoretik jotzea hobe, bai, Angel, inferuari begiak itxita, lipar batez bada ere.

Euskal ponte-izen berrien kontuarekin hatorkit. Polita Milloiko amamaren pasadizo hori. Nik Getariako bat dakarkiat.

“Gogoratzen nauk umetan, oso inguru hurbilean, honelakoak nituela: Eutimio, Leokadio...”

Ez zegok esan beharrik orduko izenak bestelakoak zirela. Gogoratzen nauk umetan, oso inguru hurbilean, honelakoak nituela: Eutimio, Leokadio, Hipolito, Kirino...; auzoan bagenian Leona izeneko amona bat ere (itxura ere halakoa zian!). Apaiza ere ez zuan libratzen: Telesforo. Izen horiek, gainera, ahoskera medio, itxuraldatu egiten zituan: Sinfiorano > *Xin-puri*, Prudentzio > *Prontxio*, Genoveva > *Kenobeba*...

Senar-emazteak zituan Urbano eta Genoveva. Txipristina bezain errea lehena, eta herrena endemas; tramana agintzaile petoa bigarrena.

Behin, lagunartetik bueltan, ordu txikitán, hor non datorren Urbano etxera, begiak txiki, herrena handi eta burua arin. Portaleko atea ezin ireki; ezin asmatu giltza sarrailan sartzen. *Dedio!* Albora jo, eta kalearen beste aldetik —bost axola auzokoak—, hor non hasten den txiloki:

-*Kenobeba!*, *Kenobeba!*

Balkoitxo ireki, gixonari erdeinuz begiratu eta eskuak tinko aldaketan:

-*Zeu zatoz edanda, eta neri* “ke no beba”, “ke no beba” esanez ari zara marruka? Ez duzu lotsarik!



Ondo pasa jaietan!

San Frantzisko, 37
Tel.: 943 740 956
ELGOIBAR

Cristina Garcia

Estetika eta Terapia Naturalak

Ondo Pasa JAIXETAN!!!

943 74 29 50 cgestetikag@gmail.com

Erronario kalea 19
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)

Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika
ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Inigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarriugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



elgoibar
biZi-biZiKa!



MENDAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskerrik asko!

Ikasturtea bukatu da Elgoibar haurreskolan, eta gutako asko urduri gaude datorren ikasturtera begira: ikastetxe berriak, haur eta guraso talde berriak, eta nola ez, irakasle berriak. Pozik eta penaz begiratzen diogu opor osteko bueltari.

Pozik, gure seme-alabak hazten doazela dakusagulako eta etapa berri baten hasieran gaudelako, baina pena handiz azken ikasturte hauetan bizitako guztiak atzean utziko ditugulako.

Gure txikiak non eta norekin utzi pentsatzen hasi ginenean batzuk oso argi genuen, eta beste batzuek ez horrenbeste. Baina orain, ikasturtea amaitu denean, gu guztion sentsazioa da merezi izan duela.

Elgoibar Haurreskolan hezitzaile talde bat baino gehiago familiaren luzapen bat aurkitu dugu, gure haurrak hazten eta hezten lagundu digun profesional talde bikaina. Beste behin erakutsi digute denok goazela lanera soldata baten truke, baina gauzak tentuz eta mimoz egin daitezkeela, eta eurek hala egiten dute.

Hemendik gure esker on publikoa Elgoibar Haurreskola osatzen duzuen hezitzaile talde bikain osoari, baina batez ere, Miren, Susana, Ainhoa eta Mariluri. Plazer bat!

Guraso eta aiton-amona talde bat ☺

Jaixetan ere 'Gure Esku Dago'

Gure Esku Dagoren jaixetako zapixak 2 eurotan izango dituzue salgai herriko tabernetan, eta baita Malako jai batzordearen txosnan ere.

Betalde, zuek bidalitako argazkixak Muebles Anton dendan ikusteko aukeria izango duzue jaixetan, abuztuaren 25, 29 eta 31n izan ezik.

Eskerrik asko, eta ondo pasa jaixetan!

Elgoibarko Gure Esku Dago ☺

Palestina

Uztailaren 23an Espainiako Auzitegi Konstituzionalak atzera bota zuen Arnaldo Otegi eta *Bateragune auziko* gainontzeko auzipetuen babes helegitea, eta hurrengo egunean Palestinaren egoeraren inguruko hitzaldia izan genuen Kultur Etxean, Arnaldo Askatu herri ekimenak antolatuta.

Hitzaldi gela jendez lepo bete zen, eta herri-tarrek interes biziz jarraitu zituzten Koldo Sagasti eta Javi Dominguez adituen azalpenak. Testuinguru historikoa laburbildu eta Palestinaren herriaren egoera eta bizi duten bortxa lazgarriaren berri eman ziguten bikain jantziriko aurkezpen batez lagunduta.

Mainstreamean erabiltzen diren *gatazka armatu* eta *aldebiko enfrontamendu* kontzeptuak arbuaitu zituzten bertan gertatzen den garbiketa etniko eta suntsiketa sistematikoaren berri emateko. Israelgo Gobernuak duela urte asko planifikatutako ibilbide orri bat gauzatzen ari da herri palestinarra desagertarazteko. Horretarako, eraso armatuez gain, hilketak, atxilotetak, baliabide eta lurren lapurketak, kontrol militar eta polizialak eta palestinaren egunerokotasunean efektu larria daukaten *apartheid* neurriak ezartzen ditu, Nazio Batuen ebazpenei muzin eginez. Era berean, lotsagarria da Europako Batasunaren eta bertako gobernuen jarrera, Estatu Batuen eta Israelen gerizpean mantenduz beraien burua.

Herritarrok Palestinaren herriari gure elkartasuna adierazteko erabili dezakegun aukera bakanetako protesta mugimenduekin bat egin eta bakoitzak ahal duen neurrian BDZ mugimenduaz bat egitea litzateke. BDZk, bere hizkiek adierazten duten legez, Israeleko Gobernuaren jarrera laguntzen duten ordezkarietako boikota, desinbertsioa eta zigorra bultzatzen du.

Arnaldo Askatu Herri Ekimena ☺



OHARRA

Abuztuaren 28an jaietako argazki osatutako ale berezia jasoko duzue. Ondo pasa sanbartolomeetan!

Lanbroa

Pedro Muguruza, 5
Tel.: 943 743 811 / 943 740 806

Astelehenetik ostiralera irekita
goizeko 6:00etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan
goizeko 7:00etatik aurrera.



- * Menuak 10€tan
- * Plater konbinatuak
- * Bokatak eramateko
- * Pintxoak



USUA

 943 256 028
kafetegia

asador ibai-ondo

MENUEN KARTA

943 256 028

MENU BEREZIAK
ERE EGITEN DITUGU

EGUNEKO
MENUA

12€



30€
(+ BEZ)

SANBARTOLOMEETAKO
MENUA



ONDO PASA JAIXETAN!!



Saiatu dira aurten ere Elgoibarko Udala eta Malako jai batzordea gaur arte nork bere aldetik antolatu ohi zituzten ekintza guztiak egitarau bakar batean batzen, baina beste behin ere ez dute akordiorik lortu. Azkeneko unera arte ibili dira negoziazioetan, baina bilerek ez dute emaitzarik eman, eta beste urtebetez bi egitarau izango dira sanbartolomeetan: ofiziala, Udalak atera ohi duena, eta Malako jai batzordearena. Bi aldeak batu ditugu elkarrizketa formatoko erreportaje honetan.

Amaia Txurruka

KULTURA ZINEGOTZIA



“Arduraz, baina ondo pasatu eta disfrutatzekeo intentzio osoz biziko ditut aurtengo sanbartolomeak”

Iritsi dira sanbartolomeak, ondo pasatzeko eta gozatzeko egunak, eta horretarako hainbat eta hainbat ekintza antolatu dituzte Udalak eta herriko eragileek. 171.000 euroko aurrekontua izango dute aurtengo jaiak, aurreko urteetan baino aurrekontu handiagoa, eta azken urteetan kendutako ekintza batzuk berreskuratuko dituzte. Amaia Txurruka kultura zinegotziak eman ditu jaiari buruzko xehetasunak.

Azken urteekin alderatuta, aurrekontua handiagoa da aurtengo jaietan.

2013an 140.000 euro ingurukoa izan zen, eta aurten 171.000 bat euro erabili ditugu egitaraua prestatzeko. Egoera ekonomikoa medio, 2008tik murrizketak egin behar izan ditugu Udalaren aurrekontua kontrolpean edukitzeko. Horretarako kendu behar izan genituen ekintza batzuk berreskuratzeko moduan gaude gaur egun, eta egokia iruditu zaigu. Gazteek, adibidez, kontzertuei garrantzia berezia ematen diete eta aurten, azken urteetan baino gehiago gozatzeko aukera izango dute, Gatibu, Gose eta Belakorekin. Su artifizialen nostalgikoentzat ere, suzko eta argizko ikuskizuna antolatu dugu parrokiako fatxadan, eta aurten Euskadiko Limousin Ganadu Txapelketa ere izango dugu. Horrek ere aurrekontua apur bat igo du. **Zeintzuk dira aurtengo egitarauan nabarmentzeko ekintzak?**

Ohikoa den herritarren inplikazioaz gain, goi mailako hiru euskal talderen kontzertuak nabarmendu behar dira batetik. Bestalde, Euskadiko Limousin ganadu txapelketa, su, argi eta musika ikuskizuna, *Atlantes* kale animazioa eta Brincadeira perkusio taldearen kalejira, *Candore* ikuskizuna...

Txupinazo historikoa izango dugu aurten, herriko historialariek.

2007an aldaketa bat egin genuen txupina botatzeko ekitaldian. Herritarren inplikazioa, ekarpena eta lanaren bitartez Elgoibarrek jasotzen dituen onurak eskertzeko eta goraitzeko modu bikaina da. Aurten, Elgoibarko iraganera gerturatu gaituzten bost herritar eta lagun izango ditugu protagonista: Julen Zabaleta, Karmelo Urdangarin, Pello Arrieta, Koldo Lizarralde eta Javier Elorza.

Herritarrek hartu al dute parte Kultura Sailak egitaraua osatzeko egin duen deialdian?

Kultura Sailarekin elkarlanean eragile askok egiten dute lan jaiak antolatzeko, bakarka zein taldeka. Programa ikusi besterik ez dago. 70 ekintzetatik 46 herritarrek antolatu eta lantzen dituzte Udalarekin elkarlanean, gainerako herritarrek disfrutatzen. Ez da deialdi baten emaitza; urteetan zehar herritarrekin egindako lanarena baizik. Kultura Sailera heltzen diren iradokizunak ere kontuan hartzen dira.

Koadrilei txaranga osatzeko aukera eskaini zitzaieen iaz 400 euroren truke. Aurten ez dugu horrelakorik ikusi. Ez zuen arrakastarik

izan ekimen horrek?

Ez genuen lortu eta aurten ez gera saiatu. Pauso batzuk eman ditugu gazteekin, elkarlanean beraien eguna antolatzeko asmotan, baina saiakera honek ez du aurrera egin. Hala ere, elkarlana badagoela iruditzen zait.

Idi-probak berreskuratu zenituzten iaz, eta aurten, probalekua ere izango du ekintza horrek. 42.000 euroko aurrekontua izan du lurzoru hori jartzeak. Zer dela-eta erabaki duzue inbertsio hori egitea urtean behin erabiliko den gune batean?

Nork dio urtean behin bakarrik erabiliko dela? Ez da hori Udalaren asmoa.

“Herritarrei dei berezia egiten diegu denon artean jaietan disfrutatu dezagun”

Iaz segurtasun neurri bereziak ikusi genituen sokamuturrean. Aurtengorako zein asmo dauka Udalak?

Segurtasun neurriak iazko berberak izango dira. Legedia gero eta zorrotzagoa da ikuskizun mota guztietan. Guk neurri bereziak ezartzeaz gain, herritarrei ere dei berezia egiten diegu denon artean jaietan disfrutatu dezagun, arduraz jokatzu eta antolakuntza arduetan edo jaietan lanean dabiltzanei lagunduz. Udal brigadako langileak, udaltzainak, Gurutze Gorrikoak... Hauei laguntzea da segurtasun neurriak emankorrena. **Aurten ere ibili zarete Malako Jai Batzordearekin harremanetan jaiak elkarrekin antolatzeko, baina ez duzue akordiorik lortu. Zein zen Gune Askeko ekintzak egitarau ofizialean sartzeko baldintza?**

Udalak ez dio inolako baldintzarik jarri ekintzak egitarau ofizialean sartzeko. Jaiak Udalak antolatzen ditu, eta Malako Jai Batzordeak, beraien esanetan, jai alternatibok eta Gune Askea kudeatzen ditu. Herriko beste eragile asko inplikatzeko dira jaietan

eta inork ez dio Udalari inoiz baldintzarik jarri programazio ofizialean agertzeko. Udalaren proposamena, gure zerbitzuak eskaintzeaz gain, Maalan antolatzen diren ekintzetan laguntzea eta beraien programazioa Udalaren programazio ofizialean agertzea izan da.

Zein izan da Malako Jai Batzordearekin akordiorik ez lortzeko arrazoia?

Euren eskaera ez datorrela bat gure proposamenarekin. Agur bat gehitzea eskatzen dute egitarauan, eta aipatu dudan arrazoiarengatik, –elkarte eta eragile asko dira, protagonismoak eskatu gabe, jaietan lanean aritzen direnak herritarrek jaietan gozatu dezaten– ez zaigu egokia iruditzen Malako Jai Batzordearen eskaera.

Malako Jai Batzordeak jasotzen al du diru-laguntzarik Udaletik sanbartolomeetako ekintzak antolatzeko?

Dirutan ez. Beraiek erabaki dute diru publikorik ez dutela kudeatu nahi eta horregatik, ez dute diru eskaerarik egiten. Maalako gunea eta honek dituen azpiegiturak beraien ganuztea adibidez laguntzeko modu aproposa da. Beharrezkoak dituzten materialak ere lagatzen dizkiegu, eta kontzertuetarako argi-indarra eta ura ere gure kontu izaten dira. Gazteen eguneko kontzertua Maalan izango da aurten ere. Jaiak eta herritarrei egiten dieten ekarpena aipagarria da, eta eskertu beharrekoa.

Gazteen Eguneko bazkaria Kalegoen plazan izango da aurten. Zer dela-eta aldaketa hori?

Urtetik urtera beharrak eta egoerak desberdinak dira. Adibidez, aurten idi-probek federazioaren araudia bete behar dute, eta Sigmako apartalekua gaueko probetarako egokitu beharra dago. Gazteek, gainera, nahiago dute plazan egin, eta gure aldetik ez dago arazorik; primeran! Horretarako aukera badago, eta egokia iruditu zaigu.

Datorren urtean izango dira Udal Hauteskundeak, eta aurtengoak izan daitezke Kultura zinegotzi bezala zure azken sanbartolomeak. Nola biziko dituzu?

Auskalo zer gertatuko den datorren urtean. Arduraz, baina ondo pasatu eta disfrutatzenko intentzio osoz biziko ditut aurtengo sanbartolomeak.



Elkartasuna, elkarlana eta parte-hartzea Maalako Gune Askean



Itziar Ibabe, Iñaki Bengoetxea eta Itsaso Alguacil Malako Jai Batzordeko kideak.

E G I T A R A U A

23, ZAPATUA

Preso eta iheslarien aldeko bazkaria. Eguerdia aldean, Maalako parkean. Ondoren, kantaldia Iñaki Labakarekin.

24, DOMEKA

Kale antzerkia arratsaldean. 23:00 Bizartegia

25, ASTELEHENA

19:00 Dantzaldia Triki ta Ke taldearekin.

27, EGUAZTENA

Erreka garbitzea goizean. Ondoren, bazkaria Segidan, trikitilariak

29, BARIKAKUA

12:00 Bazkariaren prestaketa Kalegoen plazan. 14:30 Bazkaria Kalegoen plazan. 17:30 Erreka jaitsiera 20:00 Poteo jolasak Giza Eskubideen parkean hasita. 22:00 Sari banaketa 00:00 Zaku lasterketa Kalegoen plazatik Maalara

30, ZAPATUA

20:00 Kalejira Motxaila Band taldearekin. 23:00 Kontzertua Dardara taldearekin.

Elkartasuna, elkarlana eta parte-hartzea dira Malako Jai Batzordearen oinarriak, eta hiru kontzeptu horietan oinarrituta antolatzen dituzte aurten ere Gune Askeko jaiak. Elkarlanaren bidetik, Udalarekin “harremanak leuntzeko” ahalegina egin dute azken urteotan, baina aurten ere ez dute akordiorik lortu, eta berriz ere, egitarau ofizialetik kanpora geratu da Gune Askea.

Elkarlanerako ahalegin hori ez da berria, saiakera asko egon baitira. Bi alderdiek erakutsi dute elkarlanerako asmoa, eta aspaldi hasi ziren horretarako pausoak ematen, baina azken lau urteotan harremana gehiago estutu dela uste dute Maalako Jai Batzordeko kideek, bereziki, erreka jaitsiera berreskuratu zutenetik: “Erreka jaitsierak izan zuen arrakasta ikusita, ekintza hori egitarau ofizialean sartzeko proposamena egin zigun Udalak, baina gure ustez, ekintza bakarra sartzek ez zeukan zentzurik”. Hortaz, Malako Jai Batzordeak hiru baldintza eskatu zizkion Udalari: egitarau osoa sartzeko programan, Maalako gunean ekintzaren bat antolatzea eta Udalaren egitarauan orri bat eskaintzea idatzi bat argitaratzeko. “Antza denez, idatzi horrekin ez dator bat Udala, eta ez dute gure proposamena onartu”. Hala ere, begi onez ikusten dute Gazteen Eguneko kontzertua Maalan izatea, eta oso pozik agertu dira baita ere Gazteen Eguneko bazkaria Kalegoen plazan egiteko baimena eman dietelako: “Sigman ezkutuan geratzen ginen, herritik aparte. Plaza askoz leku hobea iruditzen zaigu”. Udalarekin harremanak hobetuz doaz, baina ekintza guztiak egitarau berean sartuko balira, herritarrentzat askoz hobea izango litzatekeela uste dute. Izan ere, Gazteen Egunean Gune Askeko eta egitarau ofizialeko hainbat ekintza ordu berean egiten dira, eta herritarrek aukeratu egin behar izaten dute batera edo bestera joan.

Gune Askeko egitarauak 6.000-7.000 euroko aurrekontua

dauka, eta txosnetatik ateratako diruarekin finantzatzen dute. Udala diru-laguntzak emateko prest azaldu izan da, baina Malako Jai Batzordeak ez du diru publikorik nahi: “Jaiak elkartasunetik ulertzen ditugu, eta Gune Askean parte hartzen duten musika taldeek ez digute euren kaxé guztia kobratzen. Ezingo genuke musika talde bati sekulako dirutza ordaindu Udalak emandako diruarekin eta beste bati ez”.

Txiki Eguna eta Gazteen Eguna

Egitaraua ez da asko aldatzen urte batetik bestera, eta ekintza batzuk urtero errepikatzen dira. Preso eta iheslarien aldeko bazkaria eta horren ondorengo kantaldia, Txiki Eguneko dantzaldia, eta Gazteen Eguneko ekintzak dira horren adibide. Azken urteotan indar berezia hartu du Gazteen Egunak Gune Askean, bereziki, koardilen arteko elkarlanari esker antolatzen dutelako eguna. Balorazio positiboa egin zuten, eta aurten ere bide beretik etorriko da Gazteen Eguna.

Eta Gune Askearen arrakastak aipatzen hasita, ezin dugu Txiki Eguneko dantzaldia ahaztu. Elgoibar dantzan jartzen dute Txiki Egunean: “Elgoibartarrak bereziak gara eta dantzaldi hori plazan balitz, inork ez luke dantzarik egingo. Maalako parkea oso aproposa da horretarako”.

Malako Jai Batzordeak, bestalde, gune bat eskaini nahi izaten die herriko musikariei, eta aurten ere Dardara edota Bizartegiaren kontzertuak entzuteko aukera egongo da.

Bospasei lagunek osatzen dute gaur Jai Batzordea, baina atekak zabalik dituzte. Herriko eragile eta norbanakoak animatu nahi dituzte antolakuntza lanetara, sinisten dutelako elkarlanean ekintzak hobeto iritelen direla.



Aitor Guisasola, Patricia Rescalvo, Joanes Rodriguez eta Nora Hadi Gazte Eguneko antolakuntzako kideak.

Gazteak plazara

Elgoibartar gehienentzat udaletxeko balkoitik txupina zerurantz bota eta eztanda egiten duenean hasiko dira jaiak, baina Gazte Asanbladako kideentzat aspaldi hasi ziren sanbartolomeak. Ekaina aldera hasi ziren Gaztetxean bilerak egiten, Gazteen Eguna koadrilen artean antolatzeko. Iaz hasi ziren koadrilen artean antolakuntzako ardurak banatzen, eta aurten bide beretik prestatu dute egitaraua. Denon artean antolatuta gauzak hobeto irte ten direla adierazi dute Gazte Asanbladako kideek, eta prestakuntza lan horiek gazteen arteko harremanak estutzeko balio dutela uste dute.

Eta elkarlanak partaidetza dakar berearekin, eta partaidetzak, ideiak. Ideia horietatik etorri dira, hain zuzen ere, hainbat berrikuntza aurtengo Gazteen Egunerako. Abuztuaren 29an izango da Gazteen Eguna Gune Askean ere, eta azken urteetako ohiturari jarraituz, erreka jaitziera izango da ekintzetako bat. Ho-

rretarako, Usuatik Maala bitarteko ibai tarteak garbituko dute. Hilaren 27rako jarri dute hitzordua, eta azken urteetan garbiketa lanek hartu duten garrantziaz ohartuta, jai-egun berezia prestatu dute aurten ekitaldi horren bueltan. Goizean egingo dituzte ibai-garbitze lanak, ondoren bazkaldu egingo dute denek elkarrekin, eta arratsalderako moda desfilea prestatu dute, Gazteen Eguneko kamisetak aurkezteko. Aurtengo kamisetak bereziak izango dira, Eneko Iturbe jantzi diseinatzaile elgoibartarrak diseinatu dituelako, eta “merezi duen tarteak” eskaini nahi izan diete diseinuzko kamisetei. Eguna borobiltzeko, kontzerturen bat egongo da gauean. Herritar batzuek jaiak motzak direla pentsatuko dute akaso, baina ikusten denez gazteek badute gehiagorako indarra, eta atsedeen egunean ere, festa antolatu dute.

Baina berrikuntzarik nabarmenena Gazteen Eguneko bazkariaren kokalekua

izango da: Gazteen Eguneko bazkaria Kalegoen plazan egingo dute aurten. Urtero eskatu izan diote horretarako baimena Udalari, baina orain arte ezetza jasotzen izan dute beti. Aurten, ordea, baimena eman diete, eta “oso pozik” daude gazteak. Maalan egin zuten bazkaria lehenengo urtean, baina txiki geratu zitzaizkien gunea, eta Sigmako aparkalekuan egin izan dute ondorengoetan. Aurten plaza hartuko dute gazteek. Kalegoen plaza eta Maala elkarlotzeko ekintzak prestatu dituzte, eta herriko erdigunean zehar ibiliko dira egun osoan, bazterrak gaztetzen.

Gazteek gazteekin eta gazteentzat eginiko eguna izango da Gazteen Eguna. Iaz 400 bat gazte batu ziren, eta aurten ere hala izatea espero dute antolatzaileek. Adin eta ideologia desberdinetako gazteak batzea lortu du Gune Askeko Gazte Egunak, eta gazte sentitzen den oro gonbidatu dute parte hartzera.



Ondo pasa sanbartolomeetan!

Gizonezkoen ile-apaindegia

JOSE ANTONIO



Ilea zaintzeko Kerastase eta L'oreal tratamenduak, gizonezkoentzako zein emakumezkoentzako

Errosario kalea, 30 - Elgoibar
Tel: 943 741 492

Ondo pasa jaietan!

- Etorri ahala atenditzen dugu
- Gazteentzako moda zein klasikoa
- Bizar txukunketak egiten ditugu
- Behin erabili ostean botatzeko tresnak erabiltzen ditugu, higiene-araudian jasotakoa betetzeko



www.peluqueriajoseantonio.com

Ondo pasau jaietan!

Elgoibarko Haurreskola
943 742 141



www.haurreskolak.net



elgoibar
ikastola

etorkizun
gustura gauzatzen

jai
zoriontsuak!

Herri ekimenetik sortua,
herriarentzat lanean 1962tik hona

www.elgoibarikastola.eu

IHARDUN
MAQUINAS ESPECIALES, S.L.

Makina Bereziak

Albitxuri, 1 · 3. Pabilioia, K-L
Tel.: 943 744 466 · Faxa: 943 53 14 74
ihardun@ihardun.net · www.ihardun.net

IBARRENEA
okindegia
1870tik

San Bartolome 30,
Tel.: 680 724 060
Plaza txikitik ere badu sarrera!
ibarrenea@hotmail.es

ARTISAU-OGIA
EGUR-LABEAN
EGINDAKOA

KONTSERBAK
ETA ARDOA

ONDO PASA JAJETAN!



Erretratu zaharra



1970

Goiko erretratu zaharrak herritar batek ekarri dizkigu. 1970. urte inguruan aterata daude biak, San Bartolome jaietan. Garai hartan ohikoak ziren horrelako fondoak erabiliz erretratuak ateratzen zituzten argazkilariak jaietan, eta jende askok ateratzen zituen erretratuak. Argazki hau Kultur Etxe aurrean aterata dago. **Lehenengo argazkian** Luis Mari Perea, Maite Elkoro-Iribe eta Josean Eugi azaltzen dira. **Bigarren**ean, aldiz, Luis Mari Perea eta Ignacio Mari Andonegi.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
 ☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Gure komunitateko estatutuek diote lokal-jabeek ez dutela portaleko gastuak ordaindu beharrik, ez dutelako portalera sarbiderik. Jakin nahiko nuke klausula horrek ohiko gastuei nahiz ezohiko gastuei eragiten dien.

Oinarrizko printzipio gisa, betebeharretatik salbuesteko klausulak Estatuetan jaso daitezke, baina neurri murriztaile gisa interpretatu behar dira beti, zerbitzu eta elementu komunen mantentzean komunitate horretako jabe guztiek parte hartu behar dutela dioen Jabetza Horizontalaren Legean jasotako oinarrizko arauaren salbuespena direlako.

Zure kasuan, lokal-jabeak portaleko gastuak ordaintzetik salbuesten dituen klausula horrek ohiko gastuei nahiz ezohikoei eragiten die.

GOMENDIOA: Jabeen batzarrak estatuak egitea adostu dezake ez dauden kasuetan eta zenbait kontu arautzea beharrezkoa denetan. Estatu horiek, behin idatzi ostean, Jabetza-erregistroan erregistratu beharko dira.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





1966

Alboan duzuen argazkia 1966ko sanbartolomeetakoa da. Parrokia atzeko bolatokian aterata dago argazkia. Mutiko koadrila hori umore onez eta pozik ageri da, herriko jaiak ospatzeko gogoz.

Goian, zutik: Juan Barrenetxea eta Ignacio Mari Andonegi.

Bigarren ilaran: Alfonso Guillo eta Jose Luis Mujika.

Hirugarren ilaran, jarlekuan eserita: Luis Mari Perea, Jose Antonio Eugi eta Jose Antonio Galdos.

Lurrean, eserita: Enrique Iriondo+, Angel Etxabe eta Jean Paul Azulgarai (†).


BIM
brachymac
www.brachymac.com
Bim

Arbeloa
INMOBILIARIA
Jai zoriontsuak!
www.inmoarbeloa@euskalnet.net
San Frantzisko, 34
Tel.: 943 74 84 27

Ondo pasa jaietan!
IRATXO
ROCK-KAFEA
San Frantzisko, 41 · Tel. 943 740 257

estetikaalire
* Aurpegi eta gorputz tratamenduak
* Ongizate tratamenduak
* Masajeak
* Fotodepilazioa
* Mikropigmentazioa
* Manikura
* Solariuma
* * *
Upxiaz zehaztu, 1 behin
Tel.: 943 531 636
Elgetar
Ondo pasa jaietan!

‘Pitxirri’ gogoan



Giza Eskubideen parkean, Gernikako Arborearen kimuaren ondoan, zegoen iturria lekuz aldatzea erabaki du Elgoibarko Udalak, hainbat ekintza egitea oztopatzen zuela iritzita, eta dagoeneko egin diote leku berria parkearen albo batean. Leku aldaketarekin batera, iturria Kalegoen plazarekin harreran estua izan zuen elgoibartar bati eskaintzea erabaki dute: Gerardo Arriola *Pitxirri* pilotariari. Pilotaria eta pilotagilea izan zen Pitxirri (Elgoibar, 1889-1979). Bi goitzen zituen: *Pitxirri* eta *Baraterua*, eta oso ezaguna zen herrian Kalegoen plazako frontoian jokatu ahal izateko pilotak egin eta alokatzen zituelako. Ibaira erortzen ziren pilotak berreskuratzeko erabiltzen zuten egurrezko txanela-gatik ere ezaguna zen.

San Bartolome bezperan inauguratuko dute iturria, txupinazoa baino minutu ba-

tzuk lehenago. Arriolaren bizitzari buruzko hainbat datu azaltzen dituen plaka bat izango du iturriak. Plakan idatzita dago pilotaria izan zela *Pitxirri* 19 urtetik 44 urtera bitartean eta garai hartako pilotaririk ospetsuena kontra jokatu zuela: Atano III.a, Errasti, Txaparta, Estarta, Baltasar, Zapateriko eta Mondragones. Urte askoan, azken horren bikotekidea izan zen.

Erretiroa hartu eta pilotari izateari laga zionean, Elgoibarko frontoiko kantxa-zain lanetan aritu zen. Aurretik, haren anaia Vicente eta aita aritu ziren lan horretan. Kantxa-zain izan zen bitartean, pilotagilea ere izan zen. Batzuetan pilotak Azkoititik ekartzen zituen eta etxean bertan egiten zituen besteetan. Koldo Lizarralderen *Kalegoengo Frontoi Zaharra* liburuan jasota dagoenez, pilota horiekin Kalegoen plazako frontoian jokatu ahal

izateko, Gerardok berak ematen zuen alternatiba. *Baraterua* ere esaten zioten, plazaren ertz batean denda zeukalako [gaur egun Mahats ardategia dagoen lekuan].



Veneziako gondolarien pare

Javier Galdos zenak honela gogoratu zuen *Baraterua* BARRENI 2003an eskaini zion elkarrizketan: “Harizko edo trapuzko pilota traketekin jokatzeko genuen plazan. Ganorazko pilotekin jokatu nahi izanez gero, Gerardo Arriola *Barateruari* alokatu behar izaten genizkion pilotak eta erabilitako denboraren arabera kobratzen zigun. Etxeko atarian edukitzen zituen pilotak, eguzkitan goxatzen”.

Sasoi hartan ere ohikoa zen pilotak ibaira jaustea, eta *Barateruak* berreskuratzeko egurrezko txanela bat zuen eta makila handi batekin egiten zion bultza hari, Veneziako gondoleroek egiten duten moduan. Mutil indartsuek pilotan jokatzeko zutenean *Baraterua* dardarka hasten zen. Batzuetan nahita botatzen zituzten pilotak errekarra, gustuko pilota ez bazen”.



ESSER N-N1 Industrialdea
20850 MENDARO (Gipuzkoa)
Pedro Muguruza Etorbidea, 8-6.
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 741 677
943 203 442
607 410 410
www.dariobus.com
clientes@dariobus.com

ALDAKETA BADATOR
Elgoibar martxan

ehbildu

bildu
FESTARA!



LEIGAR ELEKTRAGAILUAK
MANU LEIZABE LOYOLA

TB · BIDEOA · HI-FI · DVD
Salmenta eta zerbitzu teknikoa
Erosario, 8 - Tel. 943 74 00 54



elgoibarko
Herri eskola

**GUZTIONA,
ZEURIA,
HERRIARENA**

ONDO PASA JAIXAK!!!



Emakumea, industrian ere bai



Argia emakumeengan jarrita aztertu du oraingoan Elgoibarko Udalak herriko industria sektorea. Ondartes enpresari agindu dio dokumentazio lana egitea, emakumeak urteetan egindako lan ezkutua bistaratu eta balioesteko, eta bildutako informazio guztiarekin erakusketa osatu dute, *Elgoibarko emakumeak eta industria: Bizitza bat, hamaika lan* izenburupean. Abuztuaren 22an zabalduko dute, eta irailaren 20ra arte egongo da ikusteko aukera, Kultur Etxeko sotoan.

Ez dute lan erraza izan ikertzaileek. Arakatu dute Udak Artxiboa, jaso dituzte Elgoibarko enpresa mundua aztertu duten gizonen itzalean jardun duten hainbat emakumeren ekarpenak, bildu dituzte lan ordainduan jardun duten emakumeen inguruko datu apurak, eta aztertu dute prentsan eta propagan-

dan emakumeei eskaini zaien tarte eta eman zaien erabilera, baina egia da, eginalak eginda ere, dokumentazio idatzi gutxi bildu dutela. Halaxe aitortu du Beatriz Herrera Ondarteseokoa ere. Hausnarketarako bidea eman du, baina, egindako lanak: zergatik izan da urteetan emakumea horren ikusezin industria alorrean? Zergatik da oraindik ere beharrezko foku berezia jartzea?

XVI. mendean hasi eta gaur arteko historia aztertu dute, eta zazpi etapatan berezita eman dute erakusketan. Eta ondorioa garbia da: emakumeak beti izan dira industria munduan, baina sarri askotan adingabeen eskulanarekin parekatu izan da haien lana, bereziki aztertutako lehenengo etapen. XVI. mendean garraio lanetan agertzen da bereziki emakumea umeein batera, baina jostungintzan ere jardun zuen. Independentzia Gerran Gipuzkoako batailoan borrokatu zuten sol-

daduentzako erropak ere josi zituzten Elgoibarko emakumeek, eta badira agiri batzuk, gerra bukatu ostean (1815) artean egindako lanagatik jaso beharreko ordaina jaso ez zutela erakusten dutenak.

Industrializazio aldian, ehungintzan eta abarketagintzan jardun ziren bereziki, baldintza makurretan sarri. Bitxia da emakumeari lotuta garaiko sozialista eta anarkistek esandakoak irakurtzea ere. Emakumeak libre izateko etxetik kanpora lan egin behar duela zioten sozialistek, eta anarkistek, aldiz, kompetentzia desleialtzat hartzen zuten, uste zutelako emakumeek ez zutela etxetik kanpora lan egin behar, gizonen gehiago kobratu ahal izateko.

36ko Gerratik hasi eta Frankismo garaia bukatu arteko epeari eskaini diote beste tarte bat, Francok emakumearen zereginari etxeko lanak egin eta senarra gustura izatera mugatzen zela aldarrikatzen zuen garaira. Gerra aurretikoko datu batek hasien du atal hori. Elgoibarren, 2.610 emakume zeuden errolatuta garai hartan, baina agiri ofizialen arabera, horietako 99k bakarrik zuten lan ordaindua. Azkenik, erakusketaren zatirik mardulena, Estarta y Ecenarro enpresari eskaini diote. Tarte horretan, bulegoko lanetan eta komunikazioari eta gaur egun marketin deitzen dugunari lotutako lanetan ageri da emakumea, dela planoen kopiak egiten, itzulpengintzan... Eta horretan seguruenik eragina izan zuten señorita Anitak emakumeak prestatzeko egindako lanak. Baina beste lan batzuk ere egiten zituzten emakumeek, jakina. Moja klaratarrek, esaterako, josteko makinaren pedalearen zati bat egiten zuten.



Espresetarako Software-an espezializatuak

Ondo pasa jaietan!

Albitxuri Industrialdea, 3i
Tel.: 943 748 105
info@softlan.biz
www.softlan.biz




Elgoibar San Bartolome jaiak 2014

Nerea Oteizak irabazi du sanbartolomeetako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa. Zazpi lagunek hartu dute parte aurten lehiaketan, eta epaimahaiak Oteizaren lana saritu du 700 euroko sariarekin. Era berean, hainbat sari emango dizkie Kultura Sailak haurrentzako kartel lehiaketan parte hartu dutenei: Eider Cerdeira (12 urte), Maddi Zabala (9 urte), Xabi Goñi (9 urte), Haritz Vallejo (9 urte), Sare Sanz (8 urte) eta Elur Esnaola (5 urte).

Maria Urizar

- Ilepaindegia
- Solariuma

Errosario kalea, 9 - 1 ezk.
Tel.: 943 744 489 - Elgoibar
mariaileapaindegia@hotmail.com



- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

TANTAKA
TABERNA

ENTSALADAK
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK
RAZIOAK

Ondo pasa sanbartolomeetan!

Aita Agirre, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 030 736

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189



karkizano

Ondo pasa sanbartolomeetan!

San Frantzisko, 14
Tel.: 943 740 549
Elgoibar

SANBARTOLOMEAK 2014

ABUZTUAK 22, barixakua

18:00 ELGOIBARKO HIRIA FUTBOL TXAPELKETA

CD Elgoibarrek antolatuta, CD Elgoibarrek eta Debako Amaiak Bat taldeek jokatuko dute Mintxetan.

19:00 ERAKUSKETA

Elgoibarko emakumeak eta industria: bizitza bat, hamaika lan erakusketa inauguratuko dute Kultur Etxeko sotoan. Irailaren 20ra arte egongo da ikusgai.

19:30 ARGAZKI ERAKUSKETA

Kirol argazkien lehiaketako lanen erakusketa. Kultur Etxeko erakusketa gelan egongo da ikusgai, abuztuaren 31ra arte.

Jarraian, KARTEL LEHIAKETAKO SARI BANAKETA

Kultur Etxean. Kirol argazkien lehiaketako sariak ere banatuko dituzte ekitaldi berean.

San Bartolome Bezpera

ABUZTUAK 23, zapatua

9:15 MEMORIAL ETXANIZ TXIRRINDULARI LASTERKETA

23 urtez azpiko afizionatu mailakoentzat. Gure Bide elkarteak antolatuta. Lehendakari Txapelketarako puntuagarria. Irteera: Kalegoen plazan. Helmuga: Pedro Migel Urruzuno kalean, 12:00etan. Jarraian, sari banaketa, Kalegoen plazan.



Egitaraua

SEGIDAN, GIZA ESKUBIDEEN PARKEKO ITURRIAREN INAGUGURAZIOA

Giza Eskubideen parkean.

13:00 TXUPINAZOA eta KANPAI JOTZEA

Herriko historiagileek botako dute: Pello Arrieta, Jabier Elorza, Koldo Lizarralde, Karmelo Urdangarin eta Julen Zabaleta 'Yulen'.



Ondoren, KALEJIRA

Mauxitxa txarangarekin.

16:00-19:30 KARTS-AK

Kalegoen Plazan.

16:00 HAURRENTZAKO PARKEA

Kalegoen Plazan Aita Agirre plazan. Euria bada, Sigman.

16:30 SORPRESA

Zaharren biltokian.

17:30 ERRALDOI ETA BURUHANDIAK, ZEZENKILETEKIN

Elgoibarko, Iruñeko eta Guardiako dultzaineroekin.

19:00 KALEJIRA

Mauxitxa txarangarekin.

20:00 SALBEA

Inazio Bereziartuaren salbea, parrokian. Udaltzata San Bartolome parrokiara joango da, "Alkate Soinu"-k lagunduta.

JARRAIAN, ONGARRIKO DANTZARI ETA TXISTULARIEI HARRERA

Orain dela 50 urte sokadantza dantzatu zuten Ongarriko dantzari harrera egingo diete, Udaleko Pleno Aretoan.

23:00 KONTZERTUA

Kalegoen plazan. Gatibu eta Seguro Dental.

ARAMBURU
BTKIDENDA
Ondo pasa jaietan!
San Frantzisko, 26 - Tel./faxa: 943 742 535 - Elgoibar

TELLABIDE
ITURGINTZA
Ondo pasa jaietan!
Berogailuak Mendaroen zein
Gasa Elgoibarren
Aire egokitua ematen dugu
Erregai likidoak zerbizua
Azpilgoeta 7 behea - Mendaro
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatellabide@hotmail.com

FONTANERÍA
Ibámar
ITURGINTZA
San Roke 10-A, behea B
Floren Cid: 647 463 436
E-posta: ibamar@euskalnet.net
BEROGAILUA • GASA • GASOLA • AIRE EGOKITUA • ALTZARIAK
MANFARAK • OSAGAIK • GREMOIEN KORDINAZIOA • ERREFORMAK
Jai zoriontsuak!
San Roke 28, behea - 943 531 301 / 627 941 261
atzak
Kafetegia

DOÑA MERCEDES
San Frantzisko, 21
20870 Elgoibar
Tel.: 943 742 652
943 742 137
Ondo pasa jaietan!

Lurdes
Ilcapaindegia
Pedre Miguel Urreuzeko kalea, 10
20870 Elgoibar (Gispakoa)
Soraia estetika

San Bartolome Eguna

ABUZTUAK 24, *domeka*

9:00 DIANA

Iruñeko eta Guardiako dultzaineroekin.

9:45 UDAL TXISTULARI BANDAREN DIANA

10:00 UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA

10:45 ELGOIBARKO ZAINDARIAREN PROZESIOA


Udal Musika Bandak, txistulari taldeak eta Udalbatzak lagunduta. Denak batera, San Bartolome parrokiara joango dira, meza nagusira. Mezatan parrokiako abesbatzak eta Haritz dantza taldeak hartuko dute parte.

11:00 MEZA NAGUSIA

Haritz Euskal Dantzari Taldearekin eta Udal Txistulari Taldearekin.

Jarraian, SOKADANTZA

Haritz Euskal Dantzari Taldeak eta Udalaren Txistulari Taldeak Txiki egunean egiten hasi zirenetik honako sokadantzaren 80. edizioa eskainiko dute. Sokadantza San Bartolome egunean egiten hasi zireneko 50. urteurrena dela eta, Ongarri elkarteko dantzari eta txistulariek, eta Udal Korporazioak hartuko dute parte.



**Ondo pasa
sanbartolomeetan!**

**PSE-EE
PSOE**



Egitaraua

Ondoren, UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

Kalegoen plazan, Txomin Mujikak zuzenduta.

- *Caireles y sol* (Lafuente)
- *Spiritual moments* (Stratford)
- *El huesped del sevillano* (Guerrero)
- *Frank Sinatra in concert* (Studnitzky)
- *Tengo una debilidad* (Moreno)
- *Gaitas* (Mujika)

16:00-20:15 HAURENTZAKO PARKEA

Kalegoen plazan (euria egiten badu Sigman).

16:00-20:30 QUADS-AK

Aita Agirre plazan.

17:30-19:00 ERRALDOIEN, BURUHANDIEN ETA ZEZEN-ZIKLETEN KALEJIRA

Elgoibarko, Iruñeko eta Guardiako dultzaineroekin batera.

18:00 PROFESIOALEN ESKU-PILOTA PARTIDAK

Kalegoen plazan. Euria bada, Ikastolako frontoian.



19:00 ANTZERKIA

Atlantes ikuskizuna. Kalebarren plazan.

23:00 SU, ARGI ETA MUSIKA IKUSKIZUNA

Parrokian.

ONDOREN, CANDORES IKUSKIZUNA

Kalegoen plazan.



- INPRIMAKETA DIGITALA
- Lan komertzialak.
- Irudi korporatiboa
- Katalogoak, Liburuxkak
- Kartelak, Egutegiak
- Ezkontza gonbidapenak
- Zorion-agurrak, etab.

TAMAINA HAUNDIKO KARTELGINTZA



San Ignazio, 1
ELGOIBAR
Tel.: 943 53 17 45
jasone@jasonesg.com

www.jasonesg.com

USATORRE

Taberna

San Antolin, 6
943 741 799

Jai zoriontsuak igaro!



CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Kango eta bameko estaldura
Zolak ezarria
Latakuak eguz, aluminio, PVC
Pisua orokorra

San Roke, 7 behea
Pel. Glaso - Glasape kalea, 18 - 25 eta 26 mailakoa
Tel. 943 748 570



HAIR'S

ILEA PAINDEGIA

San Bartolome, 6 behea
Tel.: 943 531 279

Astearteetan jubilatuen eguna:
Orraztu 8 €
Garbitu, moztu eta orraztu 16 €

Ondo pasa jaietan!



AHOLKULARITZA

BIKAIN

ASESORIA

Tel.: 943 744 557
Faxa: 943 740 408
e-posta: bikain@fonocom.es

- ⊙ Zerga-aholkularitza
- ⊙ Lan-aholkularitza
- ⊙ Kontabilitate aholkularitza

Antonio Arrillaga, 4 behea
20780 ELGOIBAR



**AUTOCARES
REVERT**

ANDRES 615 748 169
VICENTE 607 497 343

Ondo pasa jaietan!

P. Muguruza, 29 - 5ª A - 20870 ELGOIBAR Gipuzkoa
Tel.: 943 741 853 - Fax 943 531 386



Fotodepilazioa
egiten dugu

**ONDO PASA
JAJETANI!**

Santa Ana, 18
20870 Elgoibar
Tel.: 943 741 864

**talleres
ZAILDU S/L**

- Makineria konpontzen espezialistak.
- Mandrinadorean planoekin egindako lanak.
- Prentsa Goiti eta mandrinadora AYCEren mantenimendua.

*Jai zoriontsuak
elgoibartar guztioi!*

Santa Klara, 40
Tel 943 74 07 60
Faxa: 943 74 39 95

SANBARTOLOMEAK 2014

Txiki Eguna

ABUZTUAK 25, astelehena



7:30 DIANA

Mauxitxa txarangarekin eta herriko dultzaineroekin.

Ondoren, SOKAMUTURRA, Arnoren zezenekin.

Jarraian, SALDA eta TXORIZO BANAKETA

Karakate, Ego-Toki, Zubi-Ondo, Herri Gain eta Goiko Errota elkarrekin eta Batzokiak banatuta.

12:00 HAURRENTZAKO ZEZENTXO eta PONIAK

Aita Agirre plazan.

Ordu berean, MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA



Egitaraua



17:00 TXIKI EGUNeko HERRI-BAZKARIA

Sigman. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra kultur elkarte.

18:00 PROFESIOALEN ESKU-PILOTA PARTIDAK

Ikastolako Frontoian.

18:30 ERREKORTADOREAK

Aita Agirre plazan.

19:00 KALEJIRA

Brincadeira perkusio taldearekin.

22:30 MUSIKA

Xaibor DJa, Kalegoen plazan.

ABUZTUAK 27, *eguzteina*

19:00 ESKUBALOA

Sanlok antolatuta, Bera Bera eta Aula de Valladolid taldeen arteko partida. Olaizaga kiroldegian.

Gazteen Eguna

ABUZTUAK 29, *barixakua*

8:00 DIANA

Herriko dultzaineroekin.

Ondoren, SOKAMUTURRA Arnoren zezenekin.

Jarraian, SALDA ETA TXORIZOA

Karakate, Ego-Toki, Zubi-Ondo, Herri Gain eta Goiko Errota elkarteek eta Batzokiak banatuta.

12:00 GOITIBEHERRAK

Azkue-San Roken. Antolatzailea: Zuhaitz Aisialdi Taldea. Izena ematea irteeran bertan. 14 urtetik 18ra artekoek gurasoen baimena aurkeztu beharko dute.

PP
Elgoibar

JAVIER NUÑEZek
San Bartolome
jai zoriontsuak
opa dizkizue
elgoibartar guztioi

ZURE ALDE
ZA
ABOKATUAK

Jai zoriontsuak!

Komunitateen, ugazaben aholkularitza.
Zuzenbide penala, zibila, laborala, familiarra.

Itzi GIL Azpilicueta **Ignacio Vazquez Gonzalez**
Jausoro Plaza, 3 behea e-mail: zurealde@telefonica.net
Tel.: 943 531 351 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

Imprenta
Arrillaga

Goiz pasatu jaiak!

Inprimaketa: Offset
Digitalean

Ekontra gonbidapenak
Hileta organiak
Bisita txartelak
Kartelak - etiketak
e.a.

Fotokopiak

Kolonetan
Txuri-beltzean

Trenbide Kalea, 13 - behea (Frente parking Estacion Tren)
Tel.: 943 74 01 87
e-posta: arrillagask@euskalnet.net

MYL

PRECISION
SPINDLES

JAI ZORIONTSUAK

www.myl.es



OSASUN GIDA



OPTIKAK

65\07

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:

9:30-13:00

16:30-20:00

San Bartolome, 10- Elgoibar

Tel: 943 743 734

183\12

UZURI

- Optometria
- Kontaktologia

Egunero:

9:30-13:00 / 16:30-20:00

San Frantzisko, 21

Elgoibar - Tel: 943 740 359

HORTZ KUNIKAK

171\12

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre enparantza,

5 behea - Elgoibar

Tel: 943 530 053

lekueder@infomed.es

OTORRINOLARINGOLOGIA

183\12

UZURI

- Entzumen protesia
- BERRIAI**
- Tapoiak neurritra (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Tonometria

Egunero:

9:30-13:00/ 16:30-20:00

San Frantzisko, 21 - Elgoibar

Tel: 943 740 359

FISIOTERAPIA

271\12

AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzale linfatikoa (Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea

Elgoibar (Gipuzkoa)

Tel.: 943 531 953

Tel.: 669 565 745

177\12

fisio&más

Fisioterapia aurreratua eta kirol berregokitzea

- Esku-terapia.
- E.P.I @ (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).
- Mesoterapia homeopatikoa: + Traumatologia. + Estetika (zelulitisa, estriak)

Osasunerako ariketa agindua

(Diabetes, osteoporosis, hipertensio arteriala)

Entrenamendu gidatua

Pilates makinak

(errehabilitazioa)

3 pertsona gehien.


Txirindulariaren biomekanika

(kalak, ergonomia bizikletan eta lesioen prebentzioa)

Trenbide kalea 13, behea.

Tel.: 943 740 191

667 953 628



SANBARTOLOMEAK 2014

Ondoren, MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA

17:00-19:30 FUTBOL PARTIDAK ZEZEN BOLAZTATUEKIN

Aita Agirre plazan. Antolatzailea Zuhaitz aisialdi Taldea.



22:00 IDI-PROBAK

Idi gazteen probak, Sigmako aparkalekuan. Sarrera, 15 euro.

23:00 KONTZERTUA

Belako eta Gose, Maalako parkean.

24:00-3:30 ALKOHOLAREN ERABILERA ARDURATSUA

Alkohol tasaren eta substantzien frogak egiteko karpa, Maalan

Baserritarren eguna

ABUZTUAK 30, *zapatua*

9:30 GANADU LEHIAKETAKO PARTAIDEEI ONGIETORRIA

Haritz dantzari taldeak eta Udal Txistulari Bandak harrera egingo diete Kalebarren plazan.

Jarraian, BALTZOLA ANAIK TRIKILARIEN KALEJIRA

10:00 EUSKADIKO LIMOUSIN GANADUAREN TXAPELKETA

Aita Agirre plazan.

11:00 SAGARDO LEHIAKETA ETA DASTATZEA

Kalegoen plazan, Sallobente elkarteak antolatuta.

11:00 GAZTA LEHIAKETA ETA SALMENTA

Kalebarren Plazan, Kalamua elkarteak antolatuta.

12:00 KALEJIRA

Elgoibarko Kale kantariak giroa alaituko dute euskal abesti herrikoiekin.

Egitaraua

13:00 SAGARDO LEHIAKETAKO SARI BANAKETA

Kalegoen plazan.

13:30 BERTSOLARIAK

Meabebasterretxea, Ziarda eta Narbaiza bertsolariak, Kalebarren plazan.

Ondoren, SARI BANAKETA

Gazta lehiaketako sariak banatuko dituzte. Kalebarren Plazan.

17:00 BALTZOLA ANAIK TRIKITILARIEN KALEJIRA



18:00 MINTXETA MEMORIALA

San Bartolome jaietako harri-jasotze txapelketa. Kalegoen plazan. (Euria egiten badu, Ikastolan). Antolatzailea: Kalamua elkarte.

JARRAIAN, GANADU TXAPELKETAKO SARI BANAKETA

Kalegoen plazan.

18:30 KALEJIRA

Elgoibarko kale kantariak alaituko dituzte kaleak, Euskal Herriko abesti herrikoiekin.

19:30 DISKO FESTA

Oihan Vega DJarekin, Kalegoen plazan. Haurrentzako.

22:00 IDI-PROBAK

Idi gazteen probak, Sigmako aparkalekuan. Sarrera, 15 euro.

23:00 DISKO FESTA

Oihan Vega DJarekin, Kalegoen plazan.

24:00-3:30 ALKOHOLAREN ERABILERA ARDURATSUA

Alkohol tasaren eta substantzien frogak egiteko karpa, Maalan



Elgoibarren **B**izi
Elgoibarren **E**rosi
Danok **I**rabazi

Ondo pasa jaietan!

- Alire Estetika ● Aranburu Bitxidenda
- Arauri Lurrindegia ● Azkue Argazki Denda
- Biok Dekorazioa S.L.
- Burgoa Somoza Arraindegia
- Casa Astigarraga ● Doña Mercedes
- Dori Urdaitegia ● Ecenarro Merzeria
- Ene Bada ● Evoka Shoes ● Farma Apraiz
- Federopticos Ikus ● Ferpi Modak
- G & M Jantzidenda ● Garate Jantzi-Denda
- Garbiñe Estetika ● Goiara Drogeria
- Hazten ● Ipintza Margoak S.L.
- Iriondo Altzariak ● Iriondo Kirolak
- Kala Loradenda ● Karkizano
- Klitz ● Lanbroa ● Landa Harategia
- Leigar Elektragailuak ● Lete
- Luvik Oinetakoak ● Mg Burdindegia
- Moma Jantzidenda ● Muruamendiaraz
- Nu-van ● Oinez Umeen Zapata Denda
- Ongi Iturgintza ● Ortopedia Itziar Sarasketa
- Patxi Harategia ● Pitxintxu
- Sara Jantzidenda
- Skandalo Kortse-Denda Lentzeria
- Urratsak Oinetako eta Jantzi Denda
- Uzuri Optika ● Zazpi Informatika
- Zebra Modak ● Zeleta Barazkiak

ELISKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO


ERONOMIA, LANAREN
ETA LEHIAKETAZARDA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONOMICO Y COMERCIAL

EHORZKETA ETXEBERRIA S.L.



Zerbitzu iraunkorra: 943 74 13 27



Santa Klara, 16 behea • ELGOIBAR
Tel: 943 741 656 / 943 740 117
Mugikorra: 635 75 62 95
E-posta: tanaetxe@terra.es



Tel.: 943 741 011

Jai zoriontsuak!

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK
EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ

**Gaindi ezazu gida-baimena lortzeko
azterketa teorikoa 17 urte egin aurretik**

Zatoz informazio eske!

SANBARTOLOMEAK 2014

Jubilatuen eguna

ABUZTUAK 31, *domeka*

8:00 DIANA

Herriko dultzaineroekin.

SEGIDAN, SOKAMUTURRA

Arnoren zezenekin, King-Kongetik.



12:00 HEGALUZE PARRILLADA

Eusko Labeldun hegaluzea, parrillan. Kalebarren plazan. Antolatzailea: Elgoibarko Danborrada Atabal elkarte.

12:30 JUBILATUEI ESKAINITAKO MEZA

San Bartolome parrokian.

14:30 JUBILATUEN BAZKARIA

Olaizaga kiroldagian, Eguren orkestrak girotuta.

19:00 DANTZA SOLTEKO LEHIAKETA

Haritz dantza taldeak antolatuta, 16 urtetik gorakoentzako. Kalegoen plazan.

Umeen eguna

ABUZTUAK 31, *domeka*

11:45 HAURRENTZAKO ENTZIERROA

King-Kongetik Aita Agirre plazaraino.

Jarraian, ZEZENTXOAK ETA PONIAK

Aita Agirre plazan.

Egitaraua

11:30-13:45 AIRE LIBREKO MARRAZKI LEHIAKETA

Elizako arkupeetan. Antolatzailea: Zuhaitz aisialdi taldea.

14:00 HAURENTZAKO HERRI BAZKARIA

Elizako arkupeetan. Antolatzailea: Zuhaitz aisialdi taldea. 7 urtetik 14ra artekoentzat. Bakoitzak bere ogitartekoa eraman beharko du, eta freskagarriak eta postrea banatuko dituzte.

14:30 HAURENTZAKO PARKEA

Kalegoen plazan. (Euria egiten badu, Sigman). Slide-a, Aita Agirre plazan.

18:00 MARRAZKI LEHIAKETAKO SARI BANAKETA

Kalegoen plazan.

Jarraian, ERRALDOI, BURUHANDI ETA ZEZEN-ZIKLETEN KALEJIRA

Mauxitxa Txarangarekin batera. Haurrak mozorrotuta joateko eskatu dute.

20:00 PAILAZOAK

Poxpolo ta konpainia, Kalebarren plazan.



IRAILAK 1, *astelehena*

22:00 IDI-PROBAK

Idi gazteen probak, Sigmako aparkalekuan. Sarrera, 15 euro.

Gabi
jate^{ea}

Nafarroa enparantza z/g
Tel.: 943 741 230

**Ondo
pasa
jaietan!**

SAN BARTOLOME JAIETAKO MENUA

- Sarrerakoa
- Urdaiazpiko iberiko-tostadak,
pa amb tomaquet-arekin.
- Esparragoak arrautza-irinetan pasatuta,
onddo-ohetan.
- Marisko eta zigala-hostopila.
- Erreboiloa donostiar erara.
edo
- Zapo txikia plantxan, patatekin.
edo
- Azpizuna gazta-saltsarekin.
edo
- Ahate-konfita osagarriekin.
- Esne-gain eta txokolatezko tarta izoztua.
edo
- Piña-izotza eta aparra.
edo
- Sagar pudingezko tulipa.

35 euro + (B.E.Z. barne)

* Nahi izanez gero, zure neurrirako menua ere egiten dugu

Muruamendiaraz
GOZDOENDA

Ondo pasa sanbartolomeetan!



www.muruamendiaraz.com

San bartolome, 29 - 20870 Elgoibar - 943 740 345

GOKI ERREFORMAK S.L.

OBRAK ETA PROIEKTUAK



Olaso pol., 15 - 68 Pab. 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 744 223 - 943 744 587
goki@gokierreformak.com

Irizar Ibilbidea, 1 behea 20570 BERGARA
Tel.: 943 765 342 - Faxa: 943 765 216
bergara@gokierreformak.es

Fatxadak - Teilatuk - Bainugelak - Sukaldeak Igogailuak - Gremioen koordinakuntza



I.T.E.
Eraikinen ikuskaritza teknikoak



**Energia-eraginkortasunaren
ziurtagiria**

www.gokierreformak.net

Ondo pasa San Bartolome jaietan!



MIKEL ANAKABE

Seguro Dental taldeko gitarra-jolea



Ezkerretik hasita lehenengoa da Mikel Anakabe.

Urte hasieran sortu zuten Seguro Dental taldea Vigon (Galizia). Mikel Anakabe elgoibartarra Magisteritza ikasketak egitera joan zen Galiziara, eta berarekin eraman zuen gitarra. Umetan hasi zen Elgoibarko musika eskolan musika ikasketak egiten, eta orain gitarrako titulua eskuratzeko lanean dihardu Vigon. Han ezagutu dituen hiru lagunekin batera osatu dute Seguro Dental. San Bartolome bezpera egunean eskainiko dute kontzertua Kalegoen plazan, Gatibu talde ezagunaren aurretik.

“Gatiburen aurretik joko genuela jakin nuenean sekulako poza hartu nuen”

Noiz eta nola sortu duzue Seguro Dental musika taldea?

Urte hasieran elkartu ginen lau taldekideak, eta gure abestiak sortzen hasi ginen. Unibertsitateko lagun bat eta biok elkartu ginen lehenik, eta gero nirekin atletismoan dabilen beste mutil bat gehitu zitzaigun talde-
ra, eta orain berak abesten du. Laugarrena, bateria-jolea, frantziarra da, eta kasualdenez topatu genuen. Nik gitarra jotzen dut, beste kide batek gitarra eta pianoa, abeslariak baxua eta laugarrenak, bateria.

Zer dela eta jarri zenioten Seguro Dental izena taldeari?

Ez dauka bestelako istoriorik. Eguerdi batean Simpson's marrazki bizidunak ikusten ari ginen eta han hasi ziren *seguro dental* gora eta *seguro dental* behera. Taldeari izena jarri behar genion, eta horretxekin geratu ginen.

Zein musika mota egiten duzue?

Ez da erraza gure musika mota definitzea, baina rock edo hard-rock estiloaren barruan kokatzen dugu. Azken batean rock musika estiloaren barruan aukera zabala dago. Gure abestietan musika estilo desberinak nabaritzen dira.

Beste zein musika taldetan aurkitzen duzue inspirazioa?

Niri denetik gustatzen zait, baina betidanik entzun dudana taldeetako bat Gatibu da. Lehenengo diskoa atera zutenetik jarraitzen dut taldea,

eta izugarri gustatzen zait. Berri Txarrak ere gustuko dut. Eta nazioarteko taldeen artean AC/DC, Guns n' roses edo Led Zeppelin modu-koak gustatzen zaizkit.

Gatiburen jarraitzailea izanik, nola hartu duzu haien aurretik jotea?

Udaletxetik deitu zidatenean Elgoibarren kontzertua eskaintzeko sotoan izango zela uste nuen, eta urteko edozein asteburutan. San Bartolomeetan eta Gatiburen aurretik joko genuela jakin nuenean sekulako poza hartu nuen. 12 urte nituenetik jarraitzen dudana taldea da Gatibu, eta ilusio handia egin zidan.

Zer eskainiko duzue Elgoibarko kontzertuan?

Hamar bat abesti dauzkagu gureak. Orintxe ari gara azkena prestatzen, eta horiek seguru joko ditugu. Horrez gain, Los Suaves bezalako talde ezagun batzuen abestiak ere joko ditugu.

Zer da zuretzat Elgoibarren jotea?

Orain arte Vigon eskaini ditugu pare bat kontzertu, eta talde moduan Galiziatik kontzertuak ematera irteera garrantzitsua da guretzat. Elgoibarren jotzea berezia da; hunkigarria. Ezagunen aurrean jotea presio handia da, baina espero dut oso urduri ez jartzea. Atletismoan gauza bera gertatzen zitzaidan umetan, oso desberdina zen Mugertza kro-sean edo beste edozein lasterketatan parte hartzea.



Musika eskaintza oparoa

Antzerkia, dantza-ikuskizunak eta musika izango dituzte herritarrek aukeran jaietan, baina aurten, tarte zabalagoa hartuko du musikak sanbartolomeetan. Hona hemen, jaietako kontzertuen gaineko jakingarri nagusiak.

IÑAKI LABAKA

ABUZTUAREN 23AN, MAALAKO PARKEAN (BAZKARIAREN OSTEAN)

Iñaki Labaka lezotarrak girotuko du San Bartolome bezpera eguneko arratsaldea Gune Askean. Presoen aldeko bazkariaren ostean, gitarra eskuetan duela abestuko du Labakak.



BAMBOLEA

CANDORES IKUSKIZUNA. ABUZTUAK 24, 23:30 ALDERA, KALEGOEN PLAZAN.

Ikuskizun majikoa da Candores, garbia, eta zuria, bere pertsonaien kolore berekoa. Zirkoa, musika, dantza eta magia uztartuz, pertsonaia bakoitzak bere gunea beteko du, mugimenduz eta laino moduko batez. Ikusleari lainoetan dagoenaren sentsazioa emango dio. Hankapaloak, akrobatikak, magoak, trapezistak eta clownak izango dira protagonistak, karroza handi batean doan emakume batekin batera.



GATIBU

ABUZTUAK 23, 23:00ETAN, KALEGOEN PLAZAN



Gatibu taldearen ideia Alex Sardui eta Haimar Arejita musikariena da. Mikel Caballero eta Gaizka Salazar batu zitzaizkien proiektura. Hori orain dela hamabi urte gertatu zen,

2002an. Bi urterik behin kaleratu izan dituzte diskoak, eta 2012an atera zuten azkena: *Zazpi kantoietan*. Gatibu taldearen kantuek, hasiera-hasieratik, abestien bat-batekotasuna eta single izaera garbia dute. Erritmoa dute kantuek, alaitasunera gerturatzen zaituzte. San Bartolome bezpera egunean egingo dute bisita Elgoibarrera, eta azken diskoko abestiez gain, ez dira faltako taldearen abesti mitikoak.

BRINCADIRA PERKUSIO TALDEAREN KALEJIRA

ABUZTUAK 25, 19:00ETAN

Galiziatik datorkigu Brincadeira perkusio taldea. 2004an sortu zen taldea, kaleko ikuskizunak eskaintzeko. Poliki-poliki bere abesti propioak egiten hasi ziren, espresio eta erritmo desberdinak uztartuz. Taldeak izena hartu zuen Espainiako hainbat musika jaialditan, eta bere lekua egiten hasi zen. 2008an nazioartera egin zuten jauzia, eta Brasilen egin zuten musika-bira. Taldekide batzuk taldea utzi eta berriak iritsi ziren taldera. Gazteak iristearekin batera, Brincadeira taldearen estiloa aldatu egin zen. Musikariaren eta ikusleen arteko konexioa areagotu, eta koreografiak hartuko du garrantzia. Kalea girotuko dute Txiki Egunean.



ATLANTES

ABUZTUAK 24, 19:00ETAN, KALEBARREN PLAZAN



Kondaira baten arabera, gizon eta emakumeak erabateko jakinduriaren jabe ziren aintzina. Horri esker, zeruan zehar hegan egin zezaketen, tximeleten moduan egiten zuten dantza eta jauzi handiak emanez ibiltzeko gaitasuna zuten. Ozeanoaren barren barretik, Atlantidatik, gizaki magikoak etorriko dira Elgoibarko kaleetara.

TRIKI TA KE

ABUZTUAREN 25EAN, 19:00ETAN, MAALAKO PARKEAN

Erroneria eta dantza giroan abilezia handia du Triki ta Ke talde nafarrak, eta plazak dantzan jartzen dituzte. Trikitia eta beste-lako musika motak uzartzen dituzte. Txiki Eguneko arratsaldea alaituko dute Maalako Gune Askean.



GOSE

ABUZTUAREN 29AN 23:00ETAN, MAALAKO PARKEAN.

2004an hasi zuen Gose taldeak ibilbidea. Trikitia eta musika elektronikoa nahastuz, euskal kultura, euskara, eta oro har, euskal musika oinarri hartuta abiatu zuten proiektua. Kritikoen iritziz, Gose taldeak beste ikutu bat eman dio euskal musikari, zerbait berria eta desberdina eskainiz. Elektro-jazza, tangoa, sehaska kantua, afro-braziliar perkusioa, teknoa, punka edota arin-arina entzun daitezke Gosereren abestietan. Gose taldearentzat irudiak ere garrantzia handia dauka, eta proiektioak erabiltzen dituzte zuzenekoak jantzeko. Maalako parkea jantziko dute Gazteen Eguneko gauean.



XAIBOR DJA

ABUZTUAREN 25EAN, 22:30EAN, KALEGOEN PLAZAN.

2004tik dihardu Xaiborrek DJ lanetan. Musika jartzeaz gain, euskara sustatzea du helburu bere ikuskizunak, eta bi orduko saioan jardungo du zeregin horretan. Ume zein gazte-

entzako ikuskizuna ekarriko du Elgoibarrera. Abesti gehienetan Xaiborrek berak jarriko du ahotsa, eta berarekin abes-tera animatuko ditu ikusleak. Hamar urte hauetan merkatuko abesti ezagunenekin osatu du bere errepertorioa, eta Elgoibarren ere, gaur egun punta-puntan entzuten diren abestiak entzuteko aukera izango dugu.



OIHAN VEGA

ABUZTUAREN 31N, 19:30EAN ETA 23:00ETAN, KALEGOEN PLAZAN

Oihan Vega telebistako aurkezle eta irratiko esatari ezaguna Euskal Herriko DJ erreferente bilakatu da azken urteotan, 'Diskofesta' ospetsuarekin. Euskal Telebistak eta Euskadi Gazteak sustatua, Euskal Herriko disko festarik handienetan izan da, eta plazak goraino betetzen ditu. Bi saio eskainiko ditu aurten ere Elgoibarren: iluntzean, umeentzat eta gauean, helduagoentzat.



BELAKO

ABUZTUAREN 29AN, 23:00ETAN, MAALAKO PARKEAN.

Lore, Cris, Josu eta Lander laukoteak osatzen du Belako taldea. 2011ko maiatzean sortu zuten taldea, Mungian. Josu eta Lore neba-arrebak

hainbat musika talderen

abestiak jotzen hasi ziren, eta gerora, Cris eta Ibon batu zitzaizkien. Azken honek taldea utzi zuen, eta Landerrek hartu zuen haren lekua. 2012ko EITB Gaztea Lehiaketa irabazi zuten, eta 2013an atera zuten estreinako diskoa, *Eurie* izenburupean. Orduetik etengabe dihardute kontzertuak eskaintzen han eta hemen, eta aurtengo jaietan Elgoibarrera etorriko dira. Etorkizun-iragan nahastea nabari da euren doinuetan, eta zaila da taldea musika estilo batean kokatzea. Pop-rock doinuak edota abesti lasaiak eskaintzen dituzte.



*Hainbeste itxarondako festak iritsi dira.
Ondo pasa!*



HIZKUNTZ SOLUZIOAK www.ils.es

IRAILTIK HASITA 2014-2015 KURTZOKO IKASTAROAK

- Maila guztiah.
- Titulu ofizialak.
- Esperientzia duten jatorrizko irakasleak.
- Talde murriztuak, enpresako klaseak.
- Ikastaroak atzerrian.
- Multimedia gela.
- Haurrak eta gazteak 4 urtetik aurrera.

ils@ils.es
Azkue ouzoo (IMH)
Tel.: 943 744 040
Uporitzogo, 12 behea
20870 ELGOIBAR

ENPRESA ITZULPEN ETA INTERPRETazio ZERBITZUAK

- Esperientzia zabala duen lan taldea:
 - Teknikoa (makina-erreminta).
 - Komertziala.
 - Nazioarteko proiektuak.
- Goi-teknologiaren erabilera.
- Zerbitzu azharra eta kalitatezkoa.
- Prezio Lehiakorak.

Ondo pasa jaiak!!

Industry Language Services

inglés

francés

alemán

italiano

chino



INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES



NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

ZELETA

BARAZKIAK



Ekoizpen prozesuan energia berriztagarriak erabiltzen dituga



- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

*Ortutik mahaira!
Kalitatea bermatua!*

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • www.zeletabaserria.com

Ekoizpenaren %100 hazte-zikloa zainduz eta tratamendu kimikoen erabilera sahistuz lortzen dugu

Belaustegi Baserria



JATETXEA

San Migel Gaina z/g
Tel. 943 74 31 02
www.belaustegi.com

*Sanbartolomeetan
gozatu Belaustegin!*

*Ondo
pasa
jaietan!*




San Bartolomeetako menu berezia egongo da!



Kirola, klik batean

Gazteria Sailak, Kirol Patronatuak eta Ongarri argazkilari elkarteak kirol erretratu-
tuen lehiaketa antolatu du aurten ere. Kirola klik batean jaso dute partaideek.
Han eta hemen aritu dira argazkiak ateratzen, eta kirol jarduera desberdinak ba-
tu dituzte erretratuetan. 70 lan aurkeztu dituzte aurten lehiaketara. Orrialde ho-
netan dituzue saritutako argazkiak, eta saridunen izenak. Lehiaketara aurkeztu
dituzten lan guztiak Kultur Etxean egongo dira ikusgai abuztuaren 31ra arte.

Miguel Angel Castro, "Fuentona"



SARIDUNAK:

35 URTETIK GORAKOEN SARIA:

1. saria: Miguel Angel Castro (Elgoibar), "Fuentona"
2. saria: Pedro Luis Ajuriaguerra (Bilbo), "Sin aliento"

35 URTETIK BEHERAKOEN SARIA:

1. saria: Iñigo Lamelas, (Elgoibar), "Las chicas también pueden"
2. saria: Ion Zubiaurre (Elgoibar), "Afizioa"

HERRIKO SARIA:

Aitor Rementeria, "Gimnasta I"

NERABEENTZAKO SARIA:

Haizea Sanchez (Elgoibar), "Surf Eskola"



Haizea Sánchez, "Surf Eskola"




ASESORIA
GOAR

- Kontabilitatea
- Aholkularitza fiskala
- Asesoria laborala
- Abokatuak

San Bartolome, 2 behea
Tel: 943 742 674 / 943 740 234
Faxa: 943 742 129
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
asesoriagoar@outlook.com

Txintxo
INMOBILIARIA

San Bartolome, 2 behea
20870 Elgoibar (Gipuzkoa) Tel: 943 742 674



Aitor Rementeria, "Gimnasta I"

Iñigo Lamelas, "Las chicas también pueden"

NAVA
INPRIMATEGIA

Telf. eta Faxa: 943 744 451 - E-mail: nava@euskalnet.net
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

**ONDO PASA
JAIXAK....**

**ITURRI
TABERNA**

Foruen plaza, 5
Tel.: 943 257 448

**PINTXO HOTZAK ETA BEROAK
RABAK,
RAZIOAK,
OGITARTEKOAK**

*Aurtengo jaietan ere
ez gaude denok!*

Dantzaren soka.



Abuztuaren 24an egiten du soka-dantza Haritz euskal dantzari taldeak.

Aurten 50 urte beteko dira San Bartolome egunez soka-dantza egiteari ekin ziotenetik, eta urteurren hori orduko aurrekularia eta atzekularia omentzeko baliatuko ditu Haritz dantzari taldeak: Luis Gurrutxaga eta Jose Otaegi.

Hunkituta nabari zaie Luis Gurrutxaga (Elgoibar, 1940) eta Jose Otaegiri (Elgoibar, 1943). Hunkituta Haritz dantza taldeak San Bartolome egunean omenaldia egingo dielako. “Batzuk gogoratzen dira guk egindakoaz, gu geu baino gehiago beharbada, eta eskerrezkoa da”, esan du Luis Gurrutxagak, urte askoan aurrekulari ibilitakoak. Eta haren hitzekin bat egin du Otaegik, soka lagunak.

14 bat urterekin hasi zen dantzan Otaegi, eta 18 urte beteta Gurrutxaga, Eskola Armeriako eskolak bukatu ostean. Euskal dantza zaleak ziren biak eta Pilar ikastetxeko arkupeetan dantza suelta irakasten zutela jakin zutenean ez zuten zalantzarik egin. Pako Juaristi eta Miren Vallejo ziren orduko irakasleak. Ikasi zituzten trikitia, fandangoa eta bes-telakoak haien eskutik, eta aurrekuarekin probatu zuten gero. “Iñaki Gorostizak [Santuru] irakatsi zigun aurrekua dantzatzen, baina tarteka Inazio Etxeberria Parapan ere etortzen zela esango nuke. Aurrekua eta atzekua esaten genion guk orduan. “Nik aurrekua egiten nuen eta Josek atzekua”, azaldu du Gurrutxagak. Taldetxo batzen ziren, baina; 10-12 bat lagun, denak gizonetakoak.

Debuta, Santa Ana jaietan

Jende aurreko debuta Santa Ana egun batez egin zuten Santa Ana kalean bertan. Luis Gurrutxagak egin zuen aurrekua eta orduko hartan Jose Antonio Iriondok egin zuen atzekua. Geroago sartu zen biko tandem horretan Jose Otaegi, Iriondoren orde. “Esango nuke Txiki Egunez dantzatu genuen estreinako aldiaren ere Iriondok egin zuela atzekua, baina ez nago seguru-seguru ere”, zehaztu du Gurrutxagak. Denbora joan da ordutik, eta lausotu zaie memoria ere, baina estreinako hura behintzat oso argi oroitzen du Gurrutxagak.

Ondo egin bide zuten, gainera, handik gutxira Txiki Egunez dantza egiteko proposamena egin zitelako. Garai hartan, mahoizko prakak eta alkandora zuria jantzi ohi zuten gizonetakoak egun horretan, eta eropa horietan irteten ziren dantzara ere, zapi gorria eta txapela jantzita, hori bai. Ongarriren egoitza baino gertuago zegoelako-edo, Baltasar egoitzatik irteten ziren plazara, eta Elgoibarko aurrekua dantzatzen zuten han. “Aurreku berezia zen. Handik eta hemendik hartutako pausoak zituen, guk gure erara moldatutakoak”, esan du Otaegik. Hasiera-hasieratik, bai-

na, dantzari haiek garbi izan zuten aurrekuak ezin zuela Txiki Eguneko dantza izan. Merezki zuela gehiago, eta horrenbestez, San Bartolome egunez, herriko patrioiaren egunez, dantzatu beharrekoa zela; plazan, jakina. Eta halaxe eskatu zion dantzari eta txistulari taldetxo hark [Fernando Azpiazu eta Iñaki Egino ziren taldeko txistulariak] Udalari ere, Ongarri kultur elkartearen babesean. “Ongarri kultur elkarteak berak merezi du guk besteko aitortza. Lan izugarria egin zuen Elgoibarren, eta dantzaren alde ere asko egin zuten”, esan du horren harira Otaegik.

Ordurako nola edo hala “profesionalizazio” hasiak ziren dantzari gazte haiek, hein batean Jose Miguel Etxaniz zumarragarriarri esker. Etxanizek Elgoibartarra zuen emaztea, eta zapaturu etortzen zen hona, lagunengana. Berak oso ondo ezagutzen zituen hango dantzak. Halaxe, Gipuzkoako aurrekua eta beste zenbait dantza ere irakatsi zizkien hark, Pilar ikastetxeko arkupeetan zapatu eta domeka goizetan egiten zituzten entseguetan. “Zumarragako aurrekua ikasi genuen. Gipuzkoako aurrekuaren antzekoa zen, baina ez horren balletiztua. Aurreku hark hiru buelta zituen, eta guk ordura arte egiten ge-

Luis Gurrutxaga



nuenak, berriz, bi". Gaztedi dantza taldea zuten orduan elgoibartarrek ere erreferente nagusia, eta haiek ikustera eta haiengandik ikastera ere joaten ziren aukera zuten aldiro hemen gertu dantza egiten zutenean. "Aingeruen moduan egiten zuten dantzan, gaur Haritz dantza taldekoek egiten duten bezala", dio Gurrutxagak.

San Bartolome egunez

Eta halako batean, iritsi zen egun handia. 1964an gertatu zen, Angel Ajubita alkate zen garaian. "Ni soldaduska egitetik itzuli eta pare bat urtera izan zen, 24 bat urte nituela", oroitu du Gurrutxagak. Luzaroan nahi zutena lortu zuten, eta berezia, "oso berezia" egiten zitzaizkien. Hain zen berezia, prestakuntza bera ere berezia izaten zela. "San Bartolome egunean, orkestrak jartzen zigun dantzarako erritmoa, eta orkestraren erritmoa motelagoa zenez gu txistulariekin egitera ohituta geundenen aldean, Markinan Ansola anaiek grabatutako pieza batekin entsegatzen genuen. Ongarriko magnetofoiarekin joaten ginen Markinara, eta han lagatzen genien, astia zutenean beraiek grabatu ahal izateko". "Hunkigarria" zen San Bartolome egunean plazara dantzara irteea. "Txiki Eguneakoaren aldean beste glamour bat zeukan", dio Otaegi. Eta dantzariak ere zuriz jantzita iriteten

ziren, ekitaldi ofizialetan egin ohi zuten antzera. Gaur bezala, orduan ere jendetza handia batzen zela oroitzen dute eta "urduri, oso urduri" iriteten zirela plazara. "Beldurgarria izaten zen. Hankak dar-dar izaten nituen nik neuk. Gure taldeko txistulariek behin baino gehiagotan esaten zidaten lasai egoteko eta pentsatzeko han zeuden buru denak kalabazak handiak zirela. Egiten nuen ahalegina lasaitzeko, baina ezin", dio Gurrutxagak.

Gaur emazte dituztenak izaten ziren soka dantzara iriteten aurrenak, Otaegiren araberak, baina gogoan dauka orduan ere ez zela beti erraza soka dantzara jendea batzea, eta hori gaurko aldean jendea ohituago zegoela orduan dantza sueltoan egitera. Izan ere, garai hartan jai arratsaldero izaten zen Elgoibarren dantzaldia Udal Musika Bandarekin [eta uda sasoiari, gauetz] eta atsedendietan txistulariek jotzen zuten, jendeak sueltoan dantzan egin zezan.

Dantzari haietako batzuei soldaduskara joateko ordua ere iritsi zitzaizkien, baina, eta berriek ordezkatu zituzten tarte horretan. Soldadu joateko deia jaso zutenetako bat Otaegi bera izan zen. "Bi urteko etena izan zen niretzat", dio. Gurrutxagak ere urte batean egin zuen huts San Bartolome eguneko soka dantzan, arrazoi beragatik.

Herrigunetik kanpora egindako irteerak

"Gaurko Haritz dantzari taldearen profesionaltasunik gabe", baina dantzari taldetxo hura ere hasi zen "seriotzen, talde itxura hartzen". Herriko landa auzoetara joaten ziren dantzara, eskatzen zieten. Ohikoak ziren, esate baterako, Idotorbeko jaietan eta baita Finalista Eguneko eta Morkaikoren eguneko ospakizunetan ere. Azkue auzora ere joan izan ziren, baina ez talde bezala. Hara aures-

Joxe Otaegi



kularia eta atzekularia bakarrik joan ohi ziren soka dantzara, soka bera auzotarrek osatzeko ohitura zutelako. Tallarretik irtenda joaten ziren halakoetan dantzara, eta dantza egin eta lanera itzultzen ziren berriro sarri askotan. "Egun horietan alkandora txuria jantzita joaten ginen lanera ere, gero zutenean dantzara joan ahal izateko", zehaztu dute. Madarixara eta Aizpuruxora ere joan izan ziren dantzara, azken horretara Julian Lekuona abadeak eskatuta. Aizpuruxora joan ziren egun hartan, gainera, Carlos Arrese Elgoibarko alkate izandakoa ere eurekin batera joan zen Azkoitira autobusez [Aizpuruxoa zeukan emaztea Arresek]. Afari-meriendatxo egin ostean, Azkoitira zuzendu ziren denak eta han Elorza txirridulariari egiten ari zitzaizkien omenaldiaren aitzakian sortutako jaiatzeko aukera izan zuten.

Anekdotetako bat baino ez da hori. Milaka dituzte, dantzak bazter asko eta batez ere jende asko ezagutzeko aukera eskaini zuelako. "Baita urte askoan sasoiari mantentzeko aukera ere", bota du bat-batean Otaegik. Eta halaxe daude gaur ere: sasoiari. Gusto handiz ekin zioten dantzari gaztetan eta gusto handiagoz jarraitzen dute gaur euren ondorengoen jarduna. "Eta ez dadila dantzaren soka eten", bota du Otaegik.

GRUPO
B **Beristain**
LOGISTIKA BANAKETA

Logistika Banaketa, S.L.
Albitxuri industrigunea, E partzela
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 902 180 635
Fax 943 744 552

Ondo pasa jaietan!

ZAZPI
INFORMATIKA

Bernardo Ezenarro, 15 behea
Tel. / Faxa: 943 74 37 87
E-maila: zazpi@telefonica.net

20870 - ELGOIBAR
(Gipuzkoa)

ONDO PASA JAIETAN!



Santa Ana, 12 • ELGOIBAR
Tel. 943 74 00 25
www.gobike-elgoibar.es

2014 denboraldiko
AZKENAK!

%20 - %30 - %50

Ondo pasa jaietan!



Elgoibar Arreiture BHI
Arregitorre 2
Tel.: 943 748 307
E-posta: 01343faa@hezakuntza.net



Jai zoriontsuak!



GABILONDO

INMOBILIARIA AGENTZIA
Zuzenbidean lizentziatua

API { Edurne Gabilondo Loyola
Jose M^a Azpeleta Iturricastillo

HIGIEZINEN SEKTOREKO PERITU JUDIZIALA

Jai zoriontsuak denoi

SAN FRANTZISKO 51, BEHEA - ELGOIBAR - Tel: 943 74 44 67

Azken bi etxebizitzak Geminis
etxe-gunean, garaje eta trastelekuarekin

132.187 €

zubacor

ONDO PASA SAN BARTOLOME JAIAK

www.zubacor.com - zubacor@zubacor.com

Tel.: 943 740 844 - Faxes: 943 742 666

MILAR

Ondo pasa jaietan!

BIRE



PNEUMAX, S. A.

URBIO NAIEA, EDIF. 15, PAB. 52-53-54
20870 Elgoibar (GIPUZKOA)
Teléfono: 943 74 41 44 - 943 74 41 74
Fax: 943 74 40 76
E.mail: pneumax@pneumax.es
Web: www.pneumax.es



**AUTOMATIZAZIO
NEUMATIKAKO OSAGIAK**



MIKEL ASKASIBAR ARGAZKILARIA



Mikel Askasibar, Alfonso Arrillaga eta Aitor Zabala.

“Zezenak erakartzen duen jendetzak eta Txiki Eguneko naturaltasunak harritzen nau gehien”

Jaietan non-nahi ikusiko dituzu. Pauso azkarrean ibili ohi dira batetik bestera, gehienetan bakarrik. Ikusiko dituzu kale bazterren batean argazki-kameraren pantailatxoari begira, ekitalditik ekitaldirako tartetxoan ordura arte egin-dako lana erreparatzen, edo ikusiko dituzu motxila astuna bizkarrean hartuta dabilen espezie bereko beste norbaitekin kafea hartzen, jartzeko astirik gabe sarri. Argazkilariak dira. Jaietan gozatzen eta gozarazten ari direnengan izaten dute begia jarrita, eta egunean 500 bat argazki egiten ditu batez beste haietako bakoitzak. Horietako bat da Mikel Askasibar eibartarra. Elgoibarko Udalarentzat ariko da lanean aurtengo ere, Jabi Leonekin batera.



Zein da jaietako egunik edo momenturik erretratagarriena?

Txiki Eguna, zalantzarik gabe. Txaranga Errosario kalean sartzen den momentua izugarria izaten da, eta baita kalejira plazan bukatzen duteneko ere. Jendea erabat deshinituta egoten da, eta argazkilaria oharkabean pasatzen da. Ikaragarria izaten da. Jendea edozertarako prest egoten da. Nor berera egoten dira, gainera, jaiaz disfrutatzen, eta horrek asko errazten du gure lana.

Lanerako egun konplikatuak izan ohi da, baina.

Zoramena izaten da, zoramena hutsa. Min hartzeko arriskua ere izaten da, eta materiala hondatzeko ere bai. Saiatzen zara argazki kamera babesten eta mentalizatuta joaten zara bultzakadak, ukondokadak eta dena delakoak jasateko. Badakizu zer daukazu Txiki Eguna kubritze-za zozenean. Aukera dago, jakina, balkoi batera igo eta argazki guztiak handik ateratzeko ere, baina ez zait iruditzen berdina denik. Behean gelditzen den argazkilaria jaiaren parte da, eta aukera handiagoa du jai berrutik erretratatzeko.

Gauza berriak egin daitezke Txiki Egunean?

Bai, jakina. Argazkilaritza ez da gaurko kontua, baina beti dago gauza berriak egiten saiatzeko aukera. Orain, adibidez, selfiak modan daude, eta hori jakinda, saiatu zaitezke gauza berriak egiten. Elgoibarko Udala Musika Bandaren kontzertu batean egin daitezke gauza berriak? Ba bai. Iaz, adibidez, plazako frontoian barik arkupeetan egin zuten San Barto



Iñaki San Martin 'Soarte', Txiki Egunean, txarangaen artean.

lome eguneko kontzertua, eta saiatu ginen argi jokoekin-eta leku aldatetarik ematen zion berezitasun hori argazkitan jasotzen.

Eibartarra zara zu. Gogoan daukazu zure lehenengo Txiki Eguna?

Bai. Kanpo-kanpotik bizi izan nuen. Poteo orduak kubritzeko eskatu zidaten eta nire buruan 14:00ak artekoa sartzen zen hor. Muruamendi-raz gozotegi pareraino ibili nintzen txarangaen ondoan eta elkarri tarta jaurtitzeko-eta harrapatu nituen. Sekulako argazkiak nituelakoan joan nintzen etxera, eta zera! Onena galdu nuen. Lehenengo belarri-tirakada haren ondotik, ondotoxo dakit orain Errosario kalean egosten dela egun horretako onena.

“Sarri pentsatu dut zortzi gigakoarekin barik hamar megako txartelarekin etortzea”



Iñaki San Martin 'Soarte', Txiki Egunean, txarangaen artean.

Jabi Leon, hesiaren atzetik lanean, sokamuturrean.



ELKARRIZKETA

Zerbaitek harritzen zaitu sanbartolome jaietan?

Zezenak erakartzen duen jendetzak eta Txiki Egunaren naturaltasunak. Leku gutxitan topatzen da Txiki Eguneke giro hori. Ni eibartarra naiz, eta inbidia sanoz bizi dut egun hori. Eta ez naiz ari esaten jaietako giroa egun bakarrera mugatzen denik, baina Txiki Eguneke giroa hain da naturala, hain da bat-batekoa, hain da ezberdina, bakarra egiten due-la.

Zenbat argazki atera ditzakezu Txiki Egun batean? Zenbat jaietan, oro har?

Ikaragarri asko. Gehiegi. Egunean 500 bat? Badakizu zer gertatzen den? Zer aldatu den 2005etik hona? Gaur, ia momentuan bertan igotzen ditugula argazkiak eta sarri askotan ez garaia gai egin dugun lana arretaz zaintzeko ere. Argazkiak egin ahala igotzen ditugu ia-ia, ekitaldi batetik besterako tartetean, eta aukeraketa azkar horren erruz sarri oharkabean pasatzen zaizkigu lanik onenak. Bat-batean aritu beharrak hori dauka. Eta jakina, egin dugun guztia zenbatzeko astirik ere ez dugu hartzen. Bere gauza ona ere badu horrek, hala ere. Lehen, aukeraketa behin eguneke guztiak amaitutakoan egiten genuelako eta asko luzatzen zelako gure lan jarduna.

Aukeraketa egitea beti da zaila. Badaude argazki onak, badira derrigor atera beharreko momentuak, keinuak...

Bai. Behin baino gehiagotan pentsatu izan dut 8 gigako txartelarekin barik 10 megakoarekin etortzea lanera, horrenbeste argazki ez ateratzeko. Gutxi-asko, argazki-karreteekin genbiltzanean egiten genuena



Ainhoa Andonegi BARRENEKO kazetaria, Errosario kaleko balkoi batean, Txiki Egunean

egin beharko genuke hartara: zorrotzagoak izan gure lanean eta hobeto aukeratu zer erretratu. Hau da, pentsatu beharko genuke: aterako ditut lau argazki, baina laurek izan beharko dute zoragariak. Gaur gertatzen zaiguna da, baina, ezin dugula ezer galdu, dena jaso behar dugula argazkitan, eta etengabe ari garaia dispartzen.

Material garestiarekin egiten duzue lan. Jaietan badu bere arriskua zuk zeuk aitortu duzun moduan. Izan al duzu sustorik noizbait?

Plastikozko poltsak-eta erabiltzen ditut, bereziki Txiki Egunerako edo euria ari duenerako, eta izorratu izan zait kamera bat edo beste, baina zorionez, matxura txikiak izan dira. Motxilak jaietan hartzen duen izerdi-antza ere izugarria izaten da. Hori bai, ni ez naiz zuek bezala zezena irtetzen. Hor bai dagoela arriskua. Nik beti esaten dut zezenaren kontra bi aukera daukazula: galdu edo gehienez ere, enpatatu. Hesi atzean jartzen naiz ni, baina aukera balego udaletxeko balkoitik edo beste goi batetik egiteko, hobe. Behin, hesi atzean nengoela, etorri zitzaidan zezena eta hatz batean kilii-kilii baino gehiago ere egin zidan,



Arg.: Mikel Askasibar



Arg.: Mikel Askasibar



Arg.: Mikel Askasibar

Ainara Argoitia BARRENEKO kazetaria, Umeen Egunean.

Asier Orbea BARRENEKO kazetaria, sokamuturrean, zezenarekin aurrez aurre.



Arg.: Mikel Askasibar

Gurutze Gorrikoak Aitor Zabala artatzen, sokamuturrean.

eta hori errespetu handia diodala nik. Ni hasi nintzen enean Azkue eta neubakarrik



tut nire gustura eta zuzenean igotzen ditut. Albumak-edo egin behar baditut, nibelatuko ditut beharbada argazkiak, edo emango diet kolore gehiago edo gutxiago, baina horixe. Gehiago ez. Sokamuturreko argazki batean zezena korrikalariarengana gerturatzea eta halakoak ez behintzat.

Sanbartolomeetan egin dituzun argazki guztietatik zure gustuko bat aukeratzeko gai izango zinateke?

Azpilikuetak egin zidan bat aukeratzeko nuke, goitibehera batek harra-patu ninduenekoa.

Hori ez diguzu bidali?

Intimate eskubideari helduko diot.

Bai, baina zeuk egindako bat aukeratu beharko bazenu?

Ez, ezinezkoa zait. Txiki Eguneakoak, adibidez, ia denak gustatzen zaizkit. Txiki Egunean egiten ditugun bertikalak, argazki-hondoan txaranga agertzen deneko argazkiak, asko gustatzen zaizkit eta baita Umeen Egunean buruhandi eta erraldoiekin egindakoak ere.

Gustagarri edo gogaikarri zaizu parrandan dabiltzanen inguruan lanean jardutea?

Gogaikarri ez. Normala da tartean jendeak traba egitea ere, baina jaietan argazkiak egiten ibiltzea beti da gustagarri. Jendea pozik dabil eta poztasun hori erretratzea beti da polita.

Noiz hasi eta noiz bukatzen da jaietako egun bat argazkilarientzat?

Oso goiz hasten da eta oso berandu bukatu. Ordu asko dira, ordu asko jarraian, eta leher eginda bukatzen dugu. Egun guztia batetik bestera, hamar kilo pasatxoko motxila bizkarrean hartuta... askok uste izango dutena baino gogorragoa da. Eta hori ni kanpokoa naizela eta ez daukadala lana bukatu ostean lagunekin pote bat hartzeagatik eguna luzatzeko arriskurik. Sanbartolomeak bukatu eta mendira joatea gustatzen zait.

Argazki konprometiturik bai?

Ez, ez. Ez daukat gogoan. Baina disfrutatzen dut jubilatuen bazkarian eta. Dantzaldia izugarria izaten da. Hango giroa argazkitan jasotzea ere zaila izaten da askotan, baina ikustea zein gustura ari diren dantzan, zein solte dabilzan... Hori itzela da, oso dibertigarria.

Ainara Argoitia

Edu Arrillaga Txiki Egunean lanean.



Arg.: Mikel Askasibar

ginen hesi atzetik lan egiten genuenak eta denborarekin ikusi dut gero eta gehiago garelako hesi atzean. Ikusi dut Aitor [Zabala] harrapatzen, Alfonso [Arrillaga Ostarku] buruan koskor ederrarekin... Edu Arrillagak egin zuen liburu dotore askoa sokamuturraren inguruan, eta egin beharrekoak eginda daude hor.

Zeintzuk argazki egin etxean pentsatuta etortzen zara?

Ez, baina etorri aurretik beti errepasatzen dut aurreko urteetan egindako lana eta baita beste argazkilariek egindakoak ere, zer gauza berri egiten saia naitekeen ikusteko edo aurrekoetan zerk ihes egin didan ikusteko.

Falta da zerbait?

Seguru baietz, baina horri sanbartolomeak amaitu ostean erantzun ahal izango dizut hobeto.

Lanean ari garenok ekitaldi batzuetan gehiegi sartzen garelako kexatuko dira batzuk. Non dago muga argazkilariek protagonista bihurtzeko?

Hori horrela da eta kezkatzen nau gai horrek, egia esan, baina ez da erraza, ez pentsa. Gaur egun, gero eta ekitaldi gehiagotan, izen handiko taldeen kontzertuetan-eta, denbora tarte bat lagatzen zaiei argazkilariei euren lana egiteko, eta denbora hori agortu ostean, denak kanpora bidaltzen dituzte taldean. Bruce Springsteen-en kontzertuan, adibidez, egin zuten. Baina, jakina, zaila da ekitaldi guztietan hori egitea. Iruditzen zait logika jarraitzean dagoela gakoa. Argazkilariek jakin behar dugu jendeak ikusi nahi duela eta jende horrek ulertu behar du lanean ari garela. Sarri sentitu naiz gaizki, egia esan, baina lanean ere bano eta ez da erraza. Gaur, gainera, jende asko ari da argazkiak egiten eta elkarri traba egitea normala da. Hori bai, beti begiratzen dut atzean zein daukadan eta ikusten badut guraso bat ari dela bere seme-alabari argazkia egiten, saiatzen naiz txanda errespetatzen.

Udalarentzat ari zara lanean. Mugarik baduzu zeure lana egin ahal izateko orduan?

Egitarru ofizialen dagoena kubritzera mugatzen naiz ni. Hori egiteko ordaintzen didate, eta hori da nire muga bakarra. Baina bezero batentzat ari zarenean, edozein dela ere bezero hori, saiatzen zara gustatuko zaion hori egiten, salgarri dena egiten. Zuk argazki bat egin behar baduzu, baina aurrez baldin badakizu argazki hori bezeroari ez zaiola gustatuko eta ondorioz ez dizula erosiko, ba ez duzu egiten eta punto.

Photoshop bai edo ez?

Ez naiz aldekoa, baina gaur gabiltzan moduan, astirik ere ez dugu izaten erabiltzeko, egia esan. Nik Raw formatoan egiten ditut argazkiak eta kameran bertan errebelatzen ditut. Han moztzen di-



**BARREN
AZOKA**

***Uste duzuna
baino gehiago!***

**ARANTXA ETA MARIAN
FRUTADENDA**

TEL.: 943 744 440

**Zure fruta eta barazkia
dei batean etxean!**

**MARI
HARATEGIA**

TEL.: 943 743 681

**AMAIA
FRUTADENDA**

TEL.: 635 704 712

**Etxeko banaketa,
fruta eta barazki
freskoak zure etxean!**



**M. ANGELES
FRUTADENDA**

TEL.: 605 674 428

680 989 487

**Zure etxera
banatzen dugu!**

**TXILARRE barazkiak
ELIKAGAI EKOLOGIKOAK**

TEL.: 635 008 496

**Salmenta zuzena!
Baserritik etxera!**

**ZABALA
FRUTADENDA**

TEL.: 943 744 295

Etxeko salmenta zuzena!



Gremioen GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea
Xixillon 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.lodoso.es

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 531 847
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 254 522

Pagoaga

Biltegia eta tailerra
San Antolin, 13
☎ 943 740 279
Bulegoa eta erakusketa
Pedro Migel Urruzuno, 8
☎ 943 943 740 512
tienda@pagoagasa.com

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 756 044/659 334 323

Tellabide

Azpilgoeta, 7 - Mendaro
☎ 943 755 062/607 755 062

Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 740 530/605 714 905
Faxa: 943 531 825



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upalz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20





LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



Abuztuan irekita

ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:
10:00etatik 14:00 etara

Doctor Antonio Murillo

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madrilen.** Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.** Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.** Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.** Unibertsitate Institutuorietako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora Ainhoa Zulueta

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.** Unibertsitate Aitua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.** Diplomatus Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.** Hartz-Estetikan Diplomatusa. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.** Hartz-Estetikan Diplomatusa. **Autran Institutua, Bartzelona.** Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.** Okulsiotan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, ENESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGONSTONEBRIDGE, AVANTASALUD, PADI...

Galdetuiguazu!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com